

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

2719

72/2018 DEKRETUA maiatzaren 15ekoa, Valderejo Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia onartzen duena, eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroa (ES2110024) KEBA/HBBE natura gunearen kudeaketa gidalerro eta neurrien agiria eta Valderejoko Natura Parkearen Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko III. Planaren Dokumentua osorik argitaratzea agintzen duena.

Valderejo-Sobrón-Sierra de Arcena eremuari balio natural handia aitortu zaio eta apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategineko (hemendik aurrera, NKLTB) naturagune babestutzat jo da. Gainera, tipologia bikoitza biltzen du: batetik, urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez eskuratu zuen Parke Naturalaren deklarazioa; eta, bestetik, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) ere izendatu da, martxoaren 15ko 47/2016 Dekretuarekin bat.

Parke naturalari dagokionez, NKLTBaren 20. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Natura Baliabideak Antolatzekeo Plana (NBAP) izan behar du, urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuak onartutakoa, alegia. Gainera, horrekin batera, 27. artikuluekin bat, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) ere izan behar du; horretan, dagokion naturagunea kudeatzeko arau, jarraibide eta irizpide orokorrak, naturagunearen barruan garatzen diren ekonomia- eta aisialdi-jarduerak antolatzekeo arauak, eta espazioaren helburu zehatzak garatzen dituzten programak lantzekeo jarraibideak jasoko dira.

Bere aldetik, Natura 2000 Sarearen tipologia kontuan hartuta, eremuak beharrezko kontserbazio-neurriak izan behar ditu; ildo horretatik, NKLTBaren 22.5 artikulua Eusko Jaurlaritzari kontserbazio-arauak ezartzeko agintzen dio eta hori martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren bidez gauzatu zen. Bestalde, foru-organoei espazioaren kudeaketa-jarraibideak onartzeko eskatzen zaie.

Gainera, NKLTBaren 18. artikuluekin bat, naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, Valderejo eremuan bezala, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu behar dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Hori guztia betetzeko, EKZP honek izaera bikoitza biltzen du; batetik, Valderejo Parke Naturalerako NKLTBaren 27. artikulua aurreikusitako tresna da; eta, bestetik, NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoarekin bat, Natura 2000 Sareko gunea kudeatzeko jarraibideak onartzeko tresna da. Hori guztia NKLTBaren 18. artikuluan aurreikusitako dokumentu bakarrean jasotzen da.

Dokumentuaren tramitazioak NKLTBaren 29. artikulua ezarritako pausoei jarraitu die. Azpimarratzeko da bide horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean izan den koordinazioa, hori idatzi eta bultzatzean. Horrela, uztailaren 22ko 186/2016 Foru Aginduekin bat, Naturagune Babestuaren Foru-organo Kudeatzaileak Valderejo eremuaren EKZPa onartzeko prozedurari eman zion hasiera, bi helburuetarako balio zezan, hau da, bai Parke Naturalari dagokionez bai KBE-HBBEa kudeatzeko jarraibide eta jarduketei dagokienez. Aldi berean, dokumentua entzunaldiko izapidean jarri zen bi hilabetez eragindako administrazioentzat eta gizarte, ekonomia eta ingurumen interesen ordezkari ziren elkarteentzat, eta jendaurrean ezarri zen interesdun ororentzat. Gainera, aginduzko txostenak eskatu zitzaizkien kide anitzeko organoei. Parke Naturalaren Patronatuak 2016ko abenduaren 16an eman zuen bere txostena. Horren ondoren, 2017ko otsailaren 7an, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak

aipatutako dokumentuaren hasierako onespina adostu zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta foru-aldundian hirigintza arloaren eskumena dutenei bidali zitzaien.

Horren guztiaren ondoren, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 7an izandako bilkuran, EKZPa behin betiko onartu zuen. Horrek, batetik, parkearen kudeaketarako jarribide, irizpide eta gidalerroak ezartzen ditu, NKLTBaren 29.e artikuluekin bat; eta, bestetik, NKLTBaren 22.5 artikuluekin bat, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremurako kudeaketarako jarraibideak ezartzen ditu. Horiek kontserbazio-helburuetan oinarritzen dira, eta honako hau jasotzen dute: espazioak kontserbazio egoera onean mantentzeko neurri egokiak eta habitat naturalen eta espezieen habitaten narriadura eta eremu hauen izendapenak arrazoitu duten espezieengan eragina duten aldaketak saihesteko neurri egokiak.

Foru-organoak Parke Naturala eraentzen duen arau-zatia Eusko Jaurlaritzak dekretuz onartzeko eta Valderejo Parke Naturala eta 2000 Natura Sareko Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroa KEBA/HBBEa eraenduko dituen dokumentua argitaratzeko aurkeztu du. Dekretu honek bi gaiak gauzaten ditu.

Gainera, adierazi beharra dago eremuak 3/1992 Dekretuak onartutako NBAPa duela, Parke Naturalerako NKLTBaren 4. artikulua ezarritako helburu zehatzak betetzeko eta 47/2016 Dekretuaren II eranskinean jasotako Natura 2000 Sareko gunerako arauak betetzeko. Bi dokumentuak, 47/2016 Dekretuaren Azken Xedapenetatik Hirugarrenaren zehaztapenei jarraikiz, beste dokumentu bakar batean bateratzen ari dira. Hori Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da. Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2016ko abenduaren 1ean Valderejo Parke Naturalerako eta 2000 Natura Sareko Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroa (ES2110024) KEBA/ HBBEko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana (NBAP) landu eta prestatzeko prozedurari hasiera emateko eman zuen Aginduak hasitako prozedura baliatzen ari da. EKZPak bi dokumentu horiekin egiten du bat.

Ondorioz, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, NKLTBaren 22.5 eta 29. artikuluekin bat, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 15ean eginitako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. – Arau-zatiaren onarpena.

Valderejo Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia behin betiko onartzea. Hori planaren Hirugarren Zatikoko bigarren ataleko A letran dago jasota.

2. artikulua.– Argitalpena.

Dekretu honen eranskin gisa, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroa (ES2110024) KEBA/HBBE natura gunearen kudeaketa gidalerro eta neurrien agiria eta Valderejoko Natura Parkearen Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko III. Planaren Dokumentua osorik argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 15a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA, MAIATZAREN 15EKO 72/2018 DEKRETUARENA

NATURA 2000 SAREKO VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENA MENDILERROA (ES2110024)
KEBA/HBBE NATURA GUNEAREN KUDEAKETA GIDALERRO ETA NEURRIEN AGIRIA ETA
VALDEREJOKO NATURA PARKEAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ARAUTZEKO III. PLANAREN
DOKUMENTUA

AURKIBIDEA

I. AURREKARIAK ETA TESTUINGURU ARAUTZAILEA	19
II.- KUDEAKETA GIDALERROAK ETA JARDUTEKO NEURRIAK VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA (ES2110024) NAGURGUNE BABESTURAKO	19
<i>II.1. BIODIBERTSITATEAREN ZAINTZA</i>	
<i>II.1.- BASO NATURALAK ETA ERDINATURALAK</i>	<i>20</i>
<i>II.2.- MOSAIKOA TXILARDIAK, OTADIAK ETA LARREAK</i>	<i>24</i>
II.3.- HARPEAK, HARKAIZTIAK ETA LOTUTAKO HABITATAK	29
II.4.- HEZEGUNEAK	30
II.5.- IBAI SISTEMA.....	31
II.6.- ABIFAUNA	33
II 2.KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK	
II.2.1.BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA	
II.2.2.KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA,PARTAIDETZA ETA HERHERRITARRENKONTZIENTZIA	
II.2.3.GOBERNAMENDUA	
II.2.4. ZEHARKAKO BESTE JARDUEKETA BATZUK	
III.- VALDEREJOKO PARKE NATURALA ERABILI ETA KUDEATZEKO III. PLAN ZUZENDARIA.....	37
III.1.- XEDEAK.....	37
III.2.- KUDEAKETA ARAUAK, GIDALERROAK ETA JARDUERAK	37
III.2.1.- BIODIBERTSITATEA ZAINTzea	37
A.- Kontserbazio arauak.....	37
B.- Kudeaketa gidalerroak eta biodibertsitatea kontserbatzeko jarduerak	37
III.2.2.- KULTURA ONDAREA BABESTEIA.....	37
A.- Kudeaketa arauak.....	38
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	38
C.- Jarduerak	38
III.2.3.- PAISAIA BABESTEIA	39
A.- Kudeaketa arauak.....	39
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	39
C.- Jarduerak	39
III.2.4.- ZIENTZIA ETA IKERKETA JARDUERA.....	39
A.- Kudeaketa arauak.....	39
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	40
C.- Jarduerak	40
III.2.5.- ERABILERA PUBLIKOAREN KUDEAKETA	40
A.- Kudeaketa arauak.....	40
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	43
C.- Jarduerak	45
III.2.6.- TOKIKO GARAPENA	47
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	47
C.- Jarduerak	47

III.2.7.- PLANGINTZA HIDROLOGIKOA	47
A.- Kudeaketa arauak.....	47
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	31
C.- Jarduerak	48
III.2.8.- BASOGINTZA	48
A.- Kudeaketa arauak.....	48
B.- Kudeaketa <i>gidalerroak</i>	49
C.- Jarduerak	49
III.2.9.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA	49
A.- Kudeaketa arauak.....	50
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	50
C.- Jarduerak	51
III.2.10. Ehiza eta arrantza	51
A.- Kudeaketa arauak.....	51
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	53
C.- Jarduerak	53
III.2.11.- ERAIKINAK	53
A.- Kudeaketa arauak.....	54
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	54
III.2.12.- AZPIEGITURAK.....	54
A.- Kudeaketa arauak.....	55
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	55
III.3.- KUDEAKETA ESTRATEGIA	55
B.- Kudeaketa gidalerroak.....	55
C.- Jarduerak	56
III.4.-BABESTEKO, BALIABIDEAK KONTSERBATZEKO ETA GARATZEKO PROGRAMAK	
III.4.1.- PARKE NATURALAREN JARRAIPENERAKO PLANA	56
III.4.2.- ERABILERA PUBLIKOKO PLANA.....	58
III.4.3.- GARAPEN SOZIOEKONOMIKOKO PROGRAMA	59
III.4.4.- BASOGINTZAREN KUDEAKETA PLAN INTEGRALA	60
III.4.5.- ABELTZAINZAREN KUDEAKETA PLANA	
III.4.6.- VALDEREJOKO PARKE ARKEOLOGIKOA ANTOLATZEKO PLANA	
IV.- ERANSKINAK ETA KARTOGRAFIA	61

I. AURREKARIAK ETA TESTUINGURU ARAUTZAILEA

Martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren bidez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) kontserbazio bereziko eremu eta hegaztientzako babes bereziko eremu izendatu da eta naturagune babestua kontserbatzeko neurriak onartu dira.

Valderejo izenez ezagutzen den lurralde honetako zatia, natura eremua Parke Natural izendatu zen, urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez, Natura Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onartu ondoren urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuaren bidez. Halaber, ekainaren 18ko 146/2002 Dekretuaren bidez, Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko II. Plan Zuzendaria onartu zen.

Natura 2000 Sarean sartuta dauden naturagune babestuei dagokienez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina (aurrerantzean NKLTB) onartzen duenak, hau xedatzen du 22.5 artikuluan: «*Lurralde historikoetako foru-organoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak.*»

Artikulu horretan ezarrita dagoena betetzeko, agiri honetan Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBE Kudeaketako Gidalerro eta Neurriak ezartzen dira. Neurri horiek kontserbazio helburuak dauzkate, hain zuzen ere KBE-HBBE izendatzeko Dekretuaren II. Eranskinean, «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua» izenekoan ezarritakoak eta II. Eranskin horretan identifikatutako funtsezko kudeaketa elementuen arabera egituratzen dira.

Bestalde, NKLTBren 18. artikulua xedatzen duenez, leku berean babestutako espazioen figura bat baino gehiagok elkar zapaltzen badute, beraien arauak eta plangintza mekanismoak koordinatu egin beharko dira, espazioaren plangintza bilduz dokumentu bakar batean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu behar diren araubideek osotasun koherente bakarra osa dezaten. Horregatik, dokumentu honetan Valderejoko Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeko III. Plan Zuzendaria ere sartu da.

II.- KUDEAKETA GIDALERROAK ETA JARDUTEKO NEURRIAK VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA (ES2110024) NATURAGUNE BABESTURAKO

naturagune babestuan kudeatu behar diren funtsezko elementuak izendapena eragin zuten edo Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatea kontserbatzeko interesa duten habitat naturalak eta basa espezieak dira; eta hala izanik, neurri aktiboak ezarri behar dira haiek mantentzeko edo kontserbazio egoera ona lortzeko. Beraz, objektuen katalogo bat dira, zeinentzat espazioa kontserbatzeko aplikatu behar diren neurri aktiboak, gidalerroak edo arauak definitu behar baitira.

Funtsezko elementuen edo kudeaketa helburuen arabera hurbilduta, tokian dauden elementu esanguratsuak kontserbatzeko behar diren neurriak har daitezke eta kudeaketa errazten da, ekosistemen osotasuna edo osasuna baino errazago ebalua daitezkeen helburuetan oinarrituta, baina azken xedea hura dela ahaztu gabe.

Arestikoa kontuan izanda, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEn kudeatu behar diren habitatak eta espezieak ondoren aipatzen diren funtsezko elementuetan taldekatu dira.

II.1.-BIODIBERTSITATEAREN ZAINTZA

II.1.1- BASO NATURALAK ETA ERDINATURALAK

<ul style="list-style-type: none"> • Garrigak, erkameztiak, hariztiak, pagadiak, amilburu oineko basoak eta haltzadia/sahastia (9340, 9240, 9230, 9260, 9120, 9150, 9180*, 91E0*¹, 92A0 EB KOD.). • <i>Pinus pinaster</i> pinudiak (9540 EB KOD.) • Lotutako intereseko fauna: <ul style="list-style-type: none"> - Kiropteroak: <i>Myotis myotis</i>, <i>Barbastella barbastellus</i>. - Ugaztunak: basakatuak (<i>Felis silvestris</i>), muxar grisa (<i>Glis glis</i>) eta lepahoria (<i>Martes martes</i>) - Basoko hegaztiak: (ikus Abifauna funtsezko elementua). - Ornogabeak: ropalozeroak (<i>Euphydryas aurinia</i>, <i>Euplagia quadripunctaria</i>). 		
Amaierako helburua	1.	BENeko baso naturalen kontserbazio egoera hobetzea: <ul style="list-style-type: none"> - Baso naturalek okupatzen duten azalera handitzea - Baso masa autoktonoen egitura eta osaketa hobetzea - Ondoen kontserbatzen diren kokaguneak gaur egungo egoeran mantentzea.
1.1 Helburu operatiboa		Baso naturalek okupatutako azalera orokorra handitzea erraztea, ondoen kontserbatzen diren kokaguneak zaintzea.
Zuzentarauak		<ul style="list-style-type: none"> - Valderejo KBE / HKBEko Parke Naturaleko funtsezko elementuen eta kontserbazio egoera hobetzen laguntzen duten jarduera ekonomiko tradizionalen garapena sustatzea. - Mendi publikoak antolatzeko planak eta proiektuak, edo haien berrikuspenak, «Mendiak antolatzeko proiektuak. Espazio babestuetan kontserbatzeko tresnak» (Europarc, 2013) gidaliburuan ezarritako irizpideen arabera egingo dira eta dibertsitatea kontserbatu eta hobetzeko baldintza berrietara egokituko dira, helburuak, adierazle neurgarriak eta basoko biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasuna eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuak ematea bermatzeko berariazko neurriak jasoz. Horiexek dira plan edo proiektuaren helburu lehenetsiak antolamenduko area publiko osoan. Besteak beste, hauek hartuko dira aintzat: <ol style="list-style-type: none"> a) Jasangarritasuneko eta ingurune naturala kontserbatzeko irizpideak darabilen baso kudeaketa indartzea, naturagune babestua izendatua izateko kontserbazio helburuak kontuan hartuz. b) Basoko komunitate autoktonoen egiturazko eta berariazko konplexutasuna handitzeko neurriak ezartzea. c) Masak egitura irregularreko, oinez oineko edo basotxoko mendi garai bihurtzea erraztea.

¹ Sobrón aldean kokatutako eremu txiki bati dagokio. 91E0* habitataren gainerakoa ibai sistema funtsezko elementuaren barruan sartzen da.

	<p>d) Masen heldutasun maila handiagoa sustatzea ibai habitatekin kontaktua duten amezti eremuetan.</p> <p>e) Lurraldean garatzen diren erabilerak eta aprobetxamenduak plangintzan jasotzea, arreta berezia jarriz zuraren ekoizpenean, egurra ateratzean, artzaintzan eta balio naturalen hobekuntzan eta kontserbazioan.</p> <p>f) Urte askotako aleak errespetatzea eta kontserbatzea, baita oso hondatuta edo hilda daudenak ere. Haien proportzioa masaren dentsitatearen eta osasun egoeraren arabera izango da.</p> <p>g) Esku hartzerik jasango ez duten eremuak ezartzea.</p> <p>h) Zoruan eta zutik egun hilaren presentzia bultzatzea, gutxienez 40 m³/ha-raino iristeko joerarekin. Lehendik dauden egur hilaren hondarrak errespetatuko dira.</p> <p>i) Egiten diren lanetan dauden zuhaixka eta zuhaitz espezieak errespetatzea.</p> <p>j) Masa autoktonoen eta haien eta ibai ingurunearen arteko jarraitutasuna bultzatzea.</p> <p>k) Basoko lanen egutegia dauden fauna espezieei egokitzea, Batasunaren eta eskualdearen intereseko fauna nemoraleko espezieen sentikortasunik handieneko sasoian egin ez daitezen.</p> <p>l) Hondatzeko arriskua duten zuhaiztiak identifikatuko dira, eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztuko dira (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar). Artzaintzarako egutegia, abere kargak eta aprobetxatzeko azalera zehaztuko dira, eta premisa horiek bat etorri beharko dute espezie osorako idatziko den Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralarekin.</p> <p>m) Zuhaitzi bilakatzekotan dauden lahardi eta larreen azalera identifikatuko dira, baita zuhaitzi bilakatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio.</p> <p>n) Basoak Antolatzeko Plan Teknikoen jarraipen eta berrikuspen fasean basoen «naturaltasun indize» bat sartuko da. Indize konposatu horrek gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta).▪ Basoko hegaztien egoera eta joera.▪ Koleoptero saproxilikoaren ugaritasuna eta dibertsitatea.▪ Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea. <p>Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko datuak.</p>
--	---

<p>Neurriak</p>	<p>1.N.1.- Basoko lurzatién jabeekin konifero masak (<i>Pinus sylvestris</i>) Batasunaren intereseko habitatetako hostozabal naturalekin pixkanaka ordeztuko akordioak ezartzea, haiek landatzea eta espezie autoktonoek osatutako basotxoak eta heskaiak kontserbatzea sustatuz.</p> <p>Lehentasunez neurri hori interes ekologiko bereziko eremuetan aplikatuko da, hala nola hezeguneen inguruetan, mehatxatutako flora eta faunarentzako area kritikoetan edo leheneratzeko areetan, etab. Akordioak lehentasunekoak izango dira nagusiki jabe partikular direnek kudeatutako ustategien kasuan.</p> <p>1.N.2.- BENeko Baso Baliabideak Antolatzeke Plan bat idaztea, egungo Basoak Kudeatzeko Plana egokituz, zuren eta egurren aprobetxamenduak II. Eranskinaren («Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua») 1.R.12. Arauketan agertzen diren intereseko habitat eta espezieen kontserbaziotik datozen irizpideak sartuz. Plan honetan, zuhaitz zaharren inbentarioa eta jarduketa plana sartuko da.</p> <p>1.N.3.- Arestiko neurria betez egindako planetik eta dokumentu honetatik datozen basoak kudeatzeko helburuak eta irizpideak tokiko herritarren eta basogintza jarduerak egiteko arduradunen artean zabaltzea. Halaber, pertsona horiei informazioa emango zaie jardun zona bakoitzean dauden intereseko elementuen gainean: fauna mehatxatuko populazioak, balio bereziko zuhaitzak, hezegunak edo beste habitat ahul batzuk, ondare arkeologikoa, etab.</p>
<p>1.2 Helburu operatiboa</p>	<p>Baso masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Ondoen kontserbatzen diren kokagunak gaur egungo egoeran mantentzea.</p>
<p>Gidalerroak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Basoko habitaten kontserbazio egoera ona lortzeko behar liratekeen egitura eta funtzioak baldintzak ezartzea eta basoen kudeaketa helburu horietarantz bideratzea. - Basoetako basogintza jardueren helburuak haien egiturazko arkitektura dibertsifikatzea eta fauna espezieak hartzeko ahalmena handitzea izan beharko du. Adin mota guztiak biltzen dituzten masak sustatuko dira. - Habitata hobetzeko egiten diren basoko lan mota guztietan (garbiketa, meazketak eta soilguneak), haiek egitea beharrezkoa bada, pegoa, ametza, erkametza eta artea ez diren basoko espezieen gaineko inpaktua saihestu behar da, baso horietako zuhaitz dibertsitatea bultzatzeko. Lan aktiboa egin behar da kontserbatzeko arazoak dauzkaten espezieen populazioak ugaltzea errazteko. - Zuhaitz helduegien presentzia mantendu eta sustatu behar da. Zuhaitz horiek fauna espezieek habia egin eta aterpe hartu ahal izateko zuloak dauzkate, batez ere lodiak, adartsuak eta motzak direnak eta merkataritza balio urria izanik edo batere baliorik izan gabe balio biologiko handia dutenak.

Neurriak	<p>1.N.4.- Batasunaren intereseko habitatak diren baso orban autoktono nagusien ezaugarriak bereiztea, haien kontserbazio egoera ebaluatzen: egiturazko eta berariazko dibertsitatea, tamaina handiko zuhaitz helduak agertzea, egur hila oinean edo lurzoruan, hutsune txiki edo ertainak, etab.</p> <p>1.N.5.- Basoko biodibertsitatea mantentzeko eta berezko birsortzeari ez eragiteko onar daitekeen abereen eta basa unglatuen karga kalkulatzeko.</p> <p>1.N.6.- Abereen eta basa unglatuen kargak onargarria baino handiagoak badira, karga horiek kontrolatzea, birsortzeko eremuetan sareak edo hesiak jarritz edo aleak atereaz.</p>
1.3 Helburu operatiboa	<p>BENen dauden basoko kiropteroen mehatxatuen populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzeko eta basoko eta zuhaitz espezieen beharrezko asetzeko zuhaitz masen ezaugarriak zaintzea, bereziki <i>Myotis myotis</i>, <i>Barbastella barbastellus</i>. Gizakien kiropteroenganako jarrerak hobetzeko hezkuntza jarduerak ere sustatuko dira.</p>
Gidalerroak	<ul style="list-style-type: none"> - Basoko kiropteroen komunitatearen gaineko laginak egiteko teknikak sustatzea, animalien harrapaketa eta erabilerarik gabekoak; hala eta guztiz ere, aleak markatzeko eta jarraitzeko aplikazioaren egokitasuna balioztatuko da, hala nola irrati bidezko jarraipena. - Basoetan soilguneak izango direla bultzatzea, kiropteroen ehiza guneak hobetzeko.
Neurriak	<p>1.N.7.- <i>Myotis myotis</i> eta <i>Barbastella barbastellus</i> espezieen populazioen aldizkako jarraipena egitea. Haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, BENen dauden kiroptero espezieerik garrantzitsuak nahiz sasoi horretan BENERa erakartzen diren aleak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira.</p> <p>1.2 helburu operatiboan basoko masen edo habitaten naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasuna hobetzeari buruz jasotako neurriak aplikatzen dira.</p> <p>1.N.8.- BENeko basoko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioko jarduerak egitea.</p>
1.4 Helburu operatiboa	<p>KBE / HKBEn dauden ugaztunen mehatxatuen populazioaren banaketa eta bilakaera ezagutzeko, BENen espezieen gaineko inpaktuak ezabatzea, espezie horientzat intereseko habitaten azalera handitzea, haiek kontserbatzeko neurri aktiboak sustatuz.</p>
Gidalerroak	<ul style="list-style-type: none"> - Basoak basoko ugaztunen populazioak mantendu eta hobetzearekin bat datorren moduan kudeatzea.
Neurriak	<p>1.N.9.- naturagune babesteko espezie mehatxatuen zerrenda aldizka eguneratzea, fauna populazioei eta haien kontserbazio egoerari eguneratzenari dagokienez. Horretarako haien populazioen aldizkako erroldak egingo dira, arreta berezia jarritz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuenei. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola</p>

	<p>banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak.</p> <p>1.N.10.- Ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzea.</p> <p>1.2 helburu operatiboan basoko masen edo habitaten naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasuna hobetzeari buruz jasotako neurriak ere aplikatzen dira.</p>
1.5 Helburu operatiboa	KBE / HKBEn <i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Euplagia quadripunctaria</i> lepidopteroen populazioak kontserbatzea, baita espezie horien habitata ere.
Gidalerroak	- Egur hilaren presentzia sustatzea, bai zoruan bai zutik, enborrak eraitsiz, mozketen ondoren motzondoak utziz edo zuhaitzei eraztunak jarritz.
Neurriak	<p>1.N.11.- «Euskal Autonomia Erkidegoko eguneko tximeletei jarraitzeko programa» egiten jarraitzea eta, beharrezkoa bada, hura indartzea.</p> <p>1.N.12.- BENren eremuko Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko ornogabeei buruzko ezaguera hobetzeko berariazko laginak hartzea, haien kontserbazio egoerari buruzko diagnostikoa eginez eta presioak eta mehatxuak identifikatuz.</p> <p><i>Baoak eta mosaikoa txilardiak eta larreak</i> funtsezko elementuetan aipatutako espezieen habitat lehenetsiak kontserbatzeari buruz jasotako neurriak ere aplikatzen dira.</p>

II.1.2.- MOSAIKOA TXILARDIAK, OTADIAK ETA LARREAK

	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu epeleko txilardiak eta sastrakak (4030, 4060, 4090 EB KOD.) • Sastraka esklerofiloak (5110, 5210 EB KOD.) • Belar egitura naturalak eta erdinaturalak (6170, 6210, 6220*, 6230* EB KOD.) • Lotutako intereseko flora: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Orchis cazorlensis</i>, <i>Paeonia officinalis</i> <i>Microcarpa azpiesp.</i>, <i>Ephedra nebrodensis</i>, <i>Narcissus asturiensis</i>, etab. • Lotutako intereseko fauna: <ul style="list-style-type: none"> - Mendiko eta landazabaleko abifauna: (ikus Abifauna funtsezko elementua). - Kiropteroak: <i>Rhinolophus ferrumequinum</i>, <i>Rhinolophus hipposideros</i>.
Amaierako 2. helburua	Txilardi eta larreen egungo azaleraren kontserbazioa bermatzea eta mosaikoan jartzea, habitaten eta lotutako espezie mehatxatuen kontserbazio egoera onarekin bateragarri diren abereak kudeatzeko jarraibideak ezarriz.
2.1 Helburu operatiboa	Erabilera tradizionalak (abelzaintza, erlezaintza, etab.) bultzatzea, txilardi hezeen mendiko larreen egungo azalera kontserbatzea bermatuz, eta haiek mosaikoan jartzea, kontserbazio egoera onarekin bateragarri diren jarraibideak ezarriz.
Gidalerroak	- Sastraka berritzeko edo kontrolatzeko edo larreak leheneratzeko, sasi garbitze mekanikoa edo, ahal dela, eskuzkoa erabiliko da, batez ere geroago abereen kargaren bidez leheneratutako larreak berma daitekeen eremuetan.

	<p>Sasiak planifikatuta kenduko dira, orokorrean Larre Baliabideak Antolatu eta Kudeatzeko Plan Tekniko baten arabera, eta gidalerro hauek betez:</p> <ol style="list-style-type: none"> Gutxienez 5 urte igaro beharko dira azken sasi kentzetik eremu berean jardun ahal izateko. Ez da sasirik kenduko % 50etik gorako maldak dauzkaten eremuetan. Sasi kentzeak ez dira erabatekoak izango, unada txikiak utziko dira sasiak kendu gabe (% 30 artzaintza unitateko) eta sastrakaren eta larrearen arteko mugak irregularrak izango dira. <p>Ez da sasirik kenduko habitat horietan eta haien babes perimetroetan espezie mehatxatuak dauzkaten eremuetan.</p>
<p>Neurriak</p>	<p>2.N.1.- BEN osorako Larre Baliabideak Antolatu eta Kudeatzeko Plan Teknikoa idaztea. Egoeraren diagnostikoa oinarri hartuta, hauek zehaztuko ditu plan horrek:</p> <ul style="list-style-type: none"> Larre tipologiaren kalitatea eta produktibitatea. Larre aprobetxamenduko eremu bakoitzeko abere karga onargarria. Artzaintza unitateen mugaketa eta, beharrezkoa balitz, haien arteko txandakatzea zuhaixka eta belar habitaten mosaikoko banaketari eusteko. Artzaintzarako egutegia eta gutxieneko eta gehieneko egunak, espezieen eta eremuen arabera. Egungo abeltzaintza azpiegituren eta haiek hobetzeko beharrezkoen analisia (etxolak, uraskak, gatzontziak, bizkarroiak kentzeko bainuontziak, hondakinen bilketa). Larreak sortu eta hobetzeko irizpideak; hauek jasoko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Eralda daitezkeen azalaren zehaztapena. Eraldatzeko metodoen zehaztapena. Dauden larreetako zaintzen eta hobekuntzen zehaztapena. Eremuen araberrako ongarritze eta kareztatze dosi gomendatuak, haiek baimenduta baleude. Larre habitaten eta espezieen kontserbazio egoeraren jarraipenerako protokoloak eta adierazleak. Baimendu daitezkeen jardunak. Prebentzio neurriak. <p>Kasuan kasu, planak abereak kanporatzeko itxiturak ezartzea komeni den jasoko du, izan kontserbatu behar den flora enklabeak preserbatzeko, izan gutxiegi erabilitako gune jakin batzuen erabilera artzaintza gehiegi duten beste batzuen kaltetan bideratzeko.</p> <p>Halaber, plan tekniko hori lurren titular d(ir)en erakundea/ek onartu beharko du, BENen kudeaketa organoak aldeko txostena egin ondoren.</p> <p>2.N.2.- Artzaintza presioari eta abereen egonaldiei buruzko akordioak lortzea, espaziotik kanpoko erakundeek larre eskubideak dauzkaten lurretan. Lurralde osoan artzaintzaren erabilera egokia lortzeko behar diren akordioak ezarri beharko dira erakunde horiekin.</p>

	<p>2.N.3.- Erlezaintza dinamizatzeko eta berpizteko plan estrategikoa idaztea, gutxienez eduki hauek jasoz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun arazoak eta <i>Vespa velutina</i>-renak kontrolatzeko ikerketa eta neurriak. • Pestizida neurotoxikoen erabilera arautzea eta debekatu arte murriztea. • Erlauntzak instalatzea sustatzea. • Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea. • Erleen eta polinizazioaren garrantziari buruzko dibulgazioa gizartearentzat. • Polinizazio mapak egitea, erlauntzak falta diren eremuak adieraziz. Eremu horietan erlezaintzaren garapena bultzatuko litzateke. Balio ekologiko handiko eremuetan edo eskuraezinetan polinizazio estazioak jarriko lirateke. <p>2.N.4.- Foru organo eskudunek 2015-2020 LPDren kudeaketan eta, zehazki, 10.1.5. azpineurriari (Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa) lotutako laguntzetarako deitutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatzea sustatzea. Haietan, onuradunen konpromisoen artean, larreak kudeatzeko plan bati heltzea eta hura betetzea dago.</p> <p>2.N.5.- Lehen sektorearentzako (nekazariak, elkarteak, erlezainak eta landa garapenerako agentziak) laguntza motei lotutako komunikazio plan bat egitea, BENri lotutako ekoizpen jarduerak bizirautea eta txilardi, otadi eta larreen kontserbazio egoera ona mantentzea ziurtatzeko.</p> <p>1.N.9. neurria aplikatzen da, espazioan dauden eskualdearen eta/edo Batasunaren intereseko fauna espezieen kontrol eta jarraipenari dagokienez. Populazioen aldizkako erroldak egingo dira, arreta berezia jarritz espezie hauei: <i>Rhinolophus ferrumequinum</i>, <i>Rhinolophus hipposideros</i>. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak.</p>
2.2 Helburu operatiboa	<p>Lotutako flora mehatxatuaren populazioen kontserbazio eta jarraipenerako baliorik handiena duten enklabeetako floraren osaketa ezagutzea. Halaber, KBE / HKBEen dauden <i>Orchis cazorlensis</i>, <i>Narcissus asturiensis</i>, <i>Paeonia officinalis</i> <i>Microcarpa azpiespezie</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioen bilakaera ezagutzea eta ahalegin handiagoa egitea espezie horien balizko gunearen prospekzioan, populazio gune berriak aurkitzeko.</p>
Gidalerroak	<p>- Flora mehatxatuaren espezieen ezaguera eta zaintza lanak hobetzea, bereziki abeltzaintzak eta/edo erraboilien bilketak eragin diezaiekeenei dagokienez.</p>
Neurriak	<p>2.N.6.- Mendiko larreen eta txilardien flora osaketa ezagutzeko berriazko azterlana egitea haien espezie tipikoen kontserbazio egoera ezagutzeko eta, aldi berean, orkideetan aberatsak diren enklabeak dauden jakiteko, 6210 habitataren ezaugarriak ondo bereizi ahal izateko.</p> <p>2.N.7.- Informazio kanpaina bat egitea <i>asturiensis</i> eta <i>Narcissus pseudonarcissus nobilis azpiesp.</i> lilipen bilketa masiboa galarazteko, haien loraldian.</p> <p>2.N.8.- Mehatxu egoerarik handiena daukaten flora espezieen populazioak aldizka monitorizatzea: <i>Buxbaumia viridis</i>, <i>Orchis cazorlensis</i>, <i>Petrocoptis lagascae</i>, <i>Ephedra nebrodensis</i>, <i>Centaurea lagascanana</i>, <i>Coeloglossum viride</i>, <i>Epipactis palustris</i>, <i>Galium boreale</i>, <i>Genista florida</i>, <i>Orchis italica</i>, <i>Ophrys aveyronensis</i>,</p>

	<p><i>Saxifraga conifera</i> y <i>Silene ciliata</i>; baita Zuzentaruaren II. eransinean sarutako beste espezie batzuenak ere, esaterako, <i>Narcissus asturiensis</i> eta <i>Narcissus pseudonarcissus nobilis azpiesp.</i> edo naturagune babestuen eremuan etorkizunean identifika daitezkeen flora mehatxatuaren beste espezie batzuk.</p> <p>Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.</p>
2.3 Helburu operatiboa	<i>Orchis cazorlensis</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioen plantulak ernatzeko eta hazteko protokoloak garatzea.
Gidalerroak	- 2.3 helburu operatiboan aipatutako espezieak ex-situ kontserbatzea erraztea.
Neurriak	<p>2.N.9.- <i>Orchis cazorlensis</i>, <i>Petrocoptis lagascae</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioetatik lortutako plantulak ernaltzeko eta hazteko protokoloak esperimentatzea gero BENeko toki potentzialetan birkokatzeke. Neurri horren barruan, planaren indarraldian sartutako aleen jarraipen zehatza sartzen da.</p> <p>2.N.10. <i>Orchis cazorlensis</i> eta <i>Petrocoptis lagascae</i> espezieak babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatzea, «EAEko flora baskularren zerrenda gorrian «galzori larrian» jotzen den flora leheneratzeko planak idazteko oinarritzekoak» erreferentzia dokumentuaren (IHOBE. 2011ko otsaila), edo hura ordeztzen duten dokumentu eguneratuagoetan arabera.</p> <p>2.N.11.- BENen dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez «galzorian» eta «kalteberak» jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 2.N.10. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan.</p>

II.1.3.- HARPEAK, HARKAIZTIAK ETA LOTUTAKO HABITATAK

	<ul style="list-style-type: none"> • Haitzezko habitatak eta harpeak (8130, 8210, 8310 EB KOD.) • Mendiko megaforbioak (6430 EB KOD.) • Lotutako intereseko fauna: <ul style="list-style-type: none"> - Kiropteroak: <i>Miniopterus schreibersii</i>. - Abifauna harkaiztarra: (ikus Abifauna funtsezko elementua).
Amaierako 3. helburua	<p>Harpeei, barrunbe karstikoei eta harkaiztietan lotutako Batasunaren intereseko habitaten kontserbazio egoera ona zaintzea edo lortzea.</p> <p>Kiroptero eta hegazti harkaiztarren populazioen kontserbazioa, leheneratzeko eta bideragarritasuna bermatzea, BENen hartzeko ahalmena hobetuz.</p>
3.1 Helburu operatiboa	BENeko haitzezko habitaten eta harpeen kontserbazioa, mehatxu eragileen murrizketa eta kontrola eta habitat horien ezaguera handitzea.
Gidalerroak	- Naturaguneko haitzezko habitaten eta harpeen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.

Neurriak	<p>3.N.1.- BENeko lurpeko barrunbeen inbentarioa egitea.</p> <p>3.N.2.- Espeleologia talde eta elkarteekin batera barrunbeak kudeatzeko plan bat egitea barrunbeetara sartzeko eta miaztea arautzeko. Plan horretan berriazko araudi bat sartuko da, habitat hipogeoan balioen kontserbazioa ziurtatzeko, bereziki kiropteroek, kolonizatutako barrunbeen kasuan, hala nola Puron ibaiaren haitzarteko zenobioa.</p> <p>6.N.8. neurria aplikatzen da, kiroptero komunitateari eta abifauna harkaiztarrari lotutako Batasunaren intereseko habitaten kontserbazioa bermatzen duen eskalada arautzeko plan bat egiteari dagokionez.</p>
3.2 Helburu operatiboa	<p>BENen dauden kiroptero harpetarrik mehatxatuenen populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea, kiropteroen aterpe nagusien ezaugarri fisiko, biologiko eta ingurumenekoak zaintzea (Turismoak ustiatu gabeko harpeak, 8310 EB KOD.) eta gizakiek espezie horiekin dituzten jarrerak hobetzeko hezkuntza jarduerak sustatzea.</p>
Neurriak	<p>3.N.3.- <i>Miniopterus schreibersii</i> kiropteroaren aldizkako erroldak egitea. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak.</p> <p>BENeko barrunbeak kudeatzeko plana egiteari buruzko 3.N.2 neurria aplikatzen da.</p> <p>BENeko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioko jarduerak egiteari buruzko 1.N.8. neurria aplikatzen da. Jarduera hori BENren erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: foru zaindegia, basogintza sektorea, baserrien jabeak, espeleologoak, etab.</p> <p>3.N.4.- Saguzarrek aterpe darabiltzaten barrunbeak kontrolatzea eta zaintzea, bereziki Puron ibaiko haitzarteko zenobioa, zeina gutxienez urtean behin berrikusi behar bailitzateke (ahal dela udan).</p> <p>3.N.5.- Riberako haitzartearen amai aldean dagoen harpean itxitura bat jartzea, saguzarrei igarotzen utzi baina ekintza bandalikoak ekidindo duena.</p>

II.1.4.- HEZEGUNEAK

<ul style="list-style-type: none"> • Habitat lenitikoak (3140, 3150 EB KOD.) • Habitat higroturbosoak (7210*, 7220*, 7230 EB KOD.) • Lotutako intereseko fauna: <p>Anfibioak: Gailurretako uhandrea (<i>Ichthyosaura alpestris</i>), hegoaldeko apo pintatua <i>Discoglossus jeanneae</i> eta zapo lasterkaria (<i>Bufo calamita</i>).</p>	
Amaierako 4. helburua	<p>BENeko hezeguneei lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta flora mehatxatuaren populazioen kontserbazio egoera ona zaintzea edo lortzea.</p>
4.1 Helburu operatiboa	<p>BENeko hezegune nagusien banaketa, kontserbazio egoera eta bilakaera ezagutzea.</p>

Gidalerroak	- Ekosistema horien ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.
Neurriak	4.N.1.- BENeko hezegune nagusietatik Batasunaren intereseko habitatak dauzkaten inbentario xehea egitea. Hezegune horiek tipifikatu beharko ditu, hauek ere jasorik: haietako bakoitzean dauden landare komunitateen inbentarioa, haien kontserbazio egoeraren diagnostikoa eta kontserbazio neurrietarako proposamen bat, kasu bakoitzean behar besteko babes perimetroa ezarriz.
4.2 Helburu operatiboa	BENeko hezegune nagusiak babestea, kontserbazio egoera ona lortu edo hari eutsi diezaioten.
Gidalerroak	- Babestu eta leheneratzeko jarduerak inpakturik txikieneko eta paisaian txertatzeko irizpideei jarraiki egingo dira.
Neurriak	4.N.2.- Abereek zapaltzeagatik eta eutrofizazioagatik hondatutako balio natural handiko putzuak babestea. Horretarako animaliei ez zaie uberak sartzen utziko eta abereei ura emateko beste aukera batzuk aztertuko dira. Balio natural handikoak izango dira alemanen urtegia eta Crucero eta Portillo de la Sierrako putzuak. 4.N.3.- Metodo naturalen bidez «7230. Aintzira basofiloak» habitatean hazten diren landare egurkarak kenduko dira.
4.3 Helburu operatiboa	BENen <i>Ichthyosaura alpestris</i> , <i>Bufo calamita</i> , <i>Discoglossus jeanneae</i> anfibio espezieen populazioak eta bizitzeko behar dituzten habitatak kontserbatzea.
Gidalerroak	- Espezie horien ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.
Neurriak	4.N.1. eta 4.N.2. neurriak aplikatzen dira. 4.N.4.- <i>Ichthyosaura alpestris</i> , <i>Bufo calamita</i> , <i>Discoglossus jeanneae</i> , <i>Mesotriton alpestris</i> , <i>Rana dalmatina</i> , <i>Rana iberica</i> eta <i>Triturus marmoratus</i> anfibio espezieen kontrola eta jarraipena egitea, kontserbazio egoeraren diagnostikoa, bilakaera demografikoa eta haien habitatei eragiten dieten perturbazioak ere jasoz. Halaber, «1. Basoak», «5. Ibai sistema» eta «2. Txilardiak, sastrakak eta larreak» funtsezko elementuen jarraipenari eta kontserbazio egoeraren kontrolari buruzko neurriak.

II.1.5.- IBAI SISTEMA

- Ibaiertzeko landaretza (91E0* EB KOD.)
- **Lotutako intereseko fauna:**
 - Ugaztunak: Igaraba eurasiarra (*Lutra lutra*), europar bisoia (*Mustela lutreola*) eta ipurtats arrunta (*Mustela putorius*).

- Ornogabeak: ibaiko karramarro autoktonoa (<i>Austropotamobius italicus</i>).	
Amaierako 5. helburua	<p>Espazioko ibai sistemaren erabateko funtzionaltasuna mantendu, kontserbatu eta leheneratzea, intereseko espezie ugari dauzkaten zenbait habitat garatzen diren eremu gisa eta dibertsitatea eta prozesu ekologikoak mantentzen laguntzen duen korridore ekologiko gisa. Hau dakar:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BENeko ibaien eta erreken uren egoera ekologiko ona bermatzea. - Urari lotutako habitatak eta fauna eta flora populazioak aktiboki kontserbatzea eta hoberen ordezkatuta daudenak babestea. Haien heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzea. - Ibai sistemaren dibertsitate ekologikoa eta eginkizun biodinamikoa bermatuko duen ibaiertzeko korridore jarraitu bat lortzea.
5.1 Helburu operatiboa	. Faunaren joan-etorrietarako ibaiertzen konektibitatea bermatzen duen korridore ekologiko etengabe bat kontserbatu eta leheneratzea.
Gidalerroak	- Uraren kalitatezko parametro fisiko-kimikoak mantentzea, BENeko ibai eta erreketan isurketak ekidinez eta ibaiertzeko baso estaldura erraztuz.
Neurriak	<p>5.N.1.- Ibaiertzetako lurren jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, lur landatua, larreak edo etenak sorrarazi ahal dituzten bestelako erabilerengatik ibaiertzeko basoaren jarraitasuna galdu den tarteetan ibaiertzetako habitatak lehengoratzeko. Helburua ibaiertzeko landaredi naturaleko zerrenda etengabe bat lehengoratu eta mantentzea da. Zerrenda horrek gutxienez 5 metroko zabalera izango du tarte osoan, organo kudeatzaileak zehazten dituen lehentasunezko esparruetan eta organo horrek ezartzen dituen lehentasunen arabera. BEN planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena duten administrazioek parte hartuko dute zerrenda hori ezartzean. Ibaiertzeko sistemei lotutako fauna espezieen babeslekuetarako gune aproposak sortu nahi dira, bereziki igarabentzat eta bisoientzat.</p> <p>5.N.2.- Dauden bilketei eta isuriei buruz dagoen informazio guztia biltzea, ur administrazioek (EKF eta URA) daukatenetik.</p> <p>5.N.3.- Valderejoko Parke Naturalari atxikitako zaindegiaren eta ur administrazio eskudunaren arteko lankidetzak ibilguen polizia eremutik kanpo dauden eta uretara zuzeneko isuriak (putzu septikoak, atsedenlekuak, desparasitazio ontziak, etab.) edo isuri lausoak (ondoko finken ongarritzea) eragin ditzaketen jardueren ikuskaritza eta kontrol lanetan.</p> <p>5.N.4.- Erreken ondoko eremuetan, abereak dauden haietan, uraskak eraikitze edo birgaitze plan bat egitea, ibai ohea zapaltzea, urak kutsatzea eta ibaiertzeko landareak galtzea saihesteko. Besteak beste, abereen sarbidea itxi eta uraskak eraikiko dira alemanen urtegi (Lahoz) eta Puro ibaian, Lahozen uretan gora.</p>
5.2 Helburu operatiboa	Ibai sistemari lotutako fauna mehatxatuaren populazioen jarraipena eta kontserbazioa (oparotasuna, banaketa eta kontserbazio egoera), arreta berezia jarritz espezie hauei: igaraba eurasiarra, europar bisoia, ipurtats arrunta eta ibaiko karramarro autoktonoa.

Gidalerroak	- Naturaguneko funtsezko elementu honetan intereseko fauna populazioen ezaguera hobetzea eta balizko inpaktuak prebenitzea.
Neurriak	5.N.5.- BENeko ibai sistemari lotutako fauna espezieen populazioen aldizkako jarraipena egitea: igaraba, europar bisoia, ibaiko karramarro autoktonoa, <i>Barbus haasi</i> , amuarrain arrunta, abifauna, etab. Kasuan kasu, haien kontserbazio egoeraren, oparotasunaren, egituraren bilakaera demografikoaren diagnostikoa eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen identifikazioa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.

II.1.6.- ABIFAUNA

<ul style="list-style-type: none"> • Hegazti harkaiztarrak • Basoko hegaztiak • Mendiko hegaztiak • Landazabaleko hegaztiak 	
Amaierako helburua	6. Espazio honetan bizi diren hegazti migratzaile eta habiagileen populazioak babestu eta berreskuratzea, eta, horretarako, BENek hegazti talde desberdinentzat duen harrera gaitasuna hobetzea
Hegazti harkaiztarrak	
6.1 Helburu operatiboa	Harrapari nekrofagoentzat eskuragarri dagoen elikagaia gehitzea, abeltzaintza tradizional estentsiboa sustatuz.
Neurriak	<p><i>Txilardi eta larreen mosaikoa funtsezko elementuaren</i> 1. helburu operatiboaren neurriak aplikatzen dira. Haien helburua erabilera tradizionalak (abeltzaintza, erlezaintza, etab.) bultzatzea da, txilardi hezeen eta mendiko larreen egungo azalera eta mosaikoko egitura kontserbatzea berma dadin.</p> <p>Abeltzaintza tradizional estentsiboa sustatu eta zainduko da, BENeko harrapari nekrofagoek eskuragarri duten elikagaia gehitzeko eta sarraskiak simaurtegiak bakarrik pilatuta egotea saihesteko. 6.N.1.- BENen dagoen eskaintza trofiko eta sasotik sasoirako aldakortasuna balioestea urte osoan behar diren baliabide trofikoak bermatzeko.</p> <p>1.N.8. neurria aplikatzen da, kasu honetan espazioan dauden hegaztien kontserbazioaren garrantziari buruzko dibulgazioari eta garrantziari buruzkoa. Nekrofagoen taldeari dagokionez, informazio panelak jarriko dira eta haietan abeltzaintza estentsiboaren eta harrapari nekrofagoen kontserbazioaren artean dagoen lotura estua azpimarratuko da.</p>
6.2 Helburu operatiboa	Sai arre, sai zuri, arrano beltz eta belatz handiaren populazio ugaltzaileak hobeto ezagutzea eta arreta berezia hartzea ugatza eta Bonelli arranoa BENen agertzeko posibilitateari.

Neurriak	<p>6.N.2.- Sai arre, sai zuri, arrano beltz eta belatz handiaren bikote ugaltzaileen urteko erroldak egitea. Arreta berezia jartzea BENen ugatza edo Bonelli arranoa agertzeko aukerari.</p> <p>6.N.3.- Sai arre ale heldu bat irratiz markatzea espazioari ematen dion erabilera ikertzeko, Celedoniaren ereduari jarraiki (NECROPIR EFA eskualdearteko proiektua (130/09 EFA, Pirinioen biodibertsitate jasagarria: harrapari nekrofagoak, kudeaketa itunduaren ikur).</p> <p>6.N.4.- Vallegrullgo amuaren (ugatza) egoera berrikustea eta beharrezkoa bada hura konpontzea. Halaber, harrapariaren diseinua duen amu bat jarriko da kumeak hazteko mozketarik egokienetako batean edo ugatzen aipamenak dauden tokietan.</p>
6.3 Helburu operatiboa	Zuzeneko jazarpenek edo BENri eragiten dioten linea elektrikoetan talkak eta/edo elektrokuzioak eragindako abifaunaren heriotza tasa murriztea. Halaber, nekazaritzako pestizidetatik datozen pozoien erabilerak sortutako harrapari nekrofagoen heriotza tasa ezagutzea.
Neurriak	<p>6.N.5.- BENeko sare elektrikoaren eta haren eraginpeko guneen egungo egoera aztertzea lineak zuzentzeko jarduerak lehenesteko. Besteak beste, Abifauna babesteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen dela egiaztatuko da.</p> <p>Bestalde, BENren ekialdean dauden lineek harrapariengan duten eragina balioetsiko da, toki hori baita Bonelli arranoarentzako bizi eremu izateko kalitaterik handiena duena eta Arabako hegoaldeko mendilerroetako HBBEak (ES0000246) hartzen duen lurraldearekiko balizko lotunea.</p> <p>6.N.6.- BENen harrapari nekrofagoen heriotza tasaren jarraipena egitea, ingurune naturalean amu pozoituen legez kontrako erabileraren aurkako estrategia nazionalak eta Basa Flora eta Faunaren Batzordearen Ekotoxikologia Lantaldeak proposatutako pozoitze kasuetan jarduteko protokoloak ezarritako gidalerroei jarraiki.</p> <p>1.N.10. neurria aplikatzen da, ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzeari dagokionez.</p>
6.4 Helburu operatiboa	BENeko harrapari harkaiztarren kumeak hazteko tokien ingurunean lasaitasuna bermatzea, habietan eragozpenak saihesteko eta ondorioz produktibitatea handitzea lortzeko.
Neurriak	<p>6.N.7.- Erabilera publikoaren plana berraztertzea <i>II. Eranskina «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»</i> izeneko dokumentuan «Abifauna» funtsezko elementuarentzat agertzen diren ezarritako erabileren mugaketak arauketak sartzeko, bereziki 6.A.6.-6.A.19. kodeak dituztenak nahiz mugaketa hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jendea hoberen kontserbatuta dauden baso eremuetan, hala nola San Lorenzo, Vallegrull eta Cuovoqueko amilburuen azpitik eta Santa Anaren ipar hegalean dauden pagadietan eta baso mistoetan, sartu ahal izatea mugatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - BENen ezagutzen diren Bonelli arranoaren habi zaharren inguruan ingurumen inpaktu nabarmen orotatik (mendi ibiliak, azpiegituren eraikuntza, errepideak, pistak, etab.) babesteko kilometro 1eko erradioko zirkulu bat gordetzea. <p>6.N.8.- BENen eskalada arautzeko plan bat ezartzea, espazioko funtsezko elementuen kontserbazioa bermatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espezie harkaiztar mehatxatuak ugaltzeko eremuetara aldi baterako sartzeko aukera mugatzea, eta segurtasuneko perimetro bat ezartzea, eragozpenak eta hazteko tokiak lagatzea ekiditeko. - Eskalatzeko sektoreen zonakatze bat ezartzea, kirol jarduerekin eta BEN kontserbatzeko helburuekin bat datorrena.
Basoko hegaztiak	
6.5 Helburu operatiboa	Zuhaitz masarik helduenak kontserbatzea eta intereseko basoko hegaztientzat, hala nola okil beltzarentzat, habitata diren oin hilak eta eroriak mantentzea.
Neurriak	<p><i>Basoak</i> 1.2 helburu operatiboaren jarduerak aplikatzen dira, baso masa autoktonoen egituren naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasuna hobetzeari dagokionez.</p> <p>6.N.9.- Okil beltzaren hiru urtez behingo erroldak egitea ugaltze aldiaren entzuteko puntuak erabiliz.</p>
6.6 Helburu operatiboa	Intereseko basoko hegaztien populazio ugaltzaileen egoera ezagutzea: miru beltza eta gorria, europar arrano sugezalea, aztore arrunta, gabirai arrunta, arrano txikia, europar belatza eta hontza txikia. Halaber, BENen azken boladan buztangorri argia ugaltzearen buruzko datuak lortzea.
Neurriak	6.N.10.- Basoko harrapari hauen jarraipena egitea: miru beltza eta gorria (egonez gero), europar arrano sugezalea, aztore arrunta, gabirai arrunta, arrano txikia, europar belatza eta hontza txikia.
6.7 Helburu operatiboa	Ibaiertzeko basoak eta pagadiak leheneratzea, jendeari hoberen kontserbatutako eremuetara sartzeko mugatuz, buztangorri argiari eta okil beltzari espazio berriak kolonizatzen laguntzeko.
Neurriak	<p>6.N.11.- Laginketa sakona egitea buztangorri argiak habia egiten duen tokiak aurkitzeko. Prospekzioaren emaitza positiboa balitz neurriak aplikatuko lirateke BENen habia egiten duen populazio hori kontserbatzeko, hala nola tokirik egokienetan habia kutxak jartzea (% 50-80ko zuhaitz estaldura duten hostozabalen basoak).</p> <p><i>Ibai sistema</i> eta <i>Basoak</i> funtsezko elementuen neurriak aplikatzen dira.</p>

Mendiko hegaztiak	
6.8 Helburu operatiboa	Mendiko larretan dauden hegazti paseriformeen populazioak ezagutzea.
Neurriak	6.N.12.- Ugaltze sasoian eta negualdian mendiko larretan dagoen paseriforme komunitatearen inbentarioak egitea.
Landazabaleko hegaztiak	
6.9 Helburu operatiboa	Heskai lerroak leheneratzea tokirik eraldatuenetan eta espazioaren eremuan dauden zuhaixka heskaiak kontserbatzea.
Neurriak	<p>6.N.13.- Ibaiertzeko fruta arbolek, egun lagata egoteagatik basati bihurtutakoek, osatzen duten ondare genetikoa kontserbatzea eta babestea.</p> <p>6.N.14.- Kontserbazio plana egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Heskaiak eta zuhaixkak kentzea eta/edo erretzea debekatzeko. - Heskaiak eta zuhaixkak kentzea eta/edo erretzea debekatzeko. - Heskaiak eta zuhaixkak kentzea eta/edo erretzea debekatzeko. <p>6.N.15.- Heskaien luzera handitzea, belar espezieekin batera zuhaitzak eta/edo zuhaixkak landatuz, lerroetan edo kordoietan jarrita, espezie batek edo batzuek osatuta eta askotariko arkitektura heterogeneoa erabilia.</p>
6.10 Helburu operatiboa	Antzandobi arruntaren populazioen bilakaera ezagutzea.
Neurriak	6.N.16.- Antzandobi arruntaren aldizkako erroldak egitea BENren eremuan.

Dokumentu honen **I. Eranskinean** ezarritako neurriak eta jardueren kostuaren gutxi gorabeherako kalkulua dakartzan taula bat jaso da.

III. Eranskinean (Nekazaritza eta abeltzaintzarako kudeaketa neurriak eta tresnak) azaltzen diren neurri guztiak naturagune babestu osoari ere aplikatzen zaizkio, hots, KBE / HKBEren esparruan. Gauza bera gertatzen da II. Eranskinarekin (Erabilera mugaketengatik konpentsazio sistemak eta landa garapenerako laguntzak).

II.2. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

II.2.1.- BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

Amaierako 7. helburua	Ahalik eta zehaztasun gehienez ezagutzea KBEko eta biotopo babestuko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta zein den kontserbazio egokirako erreferentziako egoera, bai eta galera edo narriadura eragin dezaketen kausak zein diren zehaztea ere, horrela epe luzerako mantentzea bermatu dezaketen beharrezko neurriak berriro diseinatzeo eta egokitzeko.
------------------------------	---

7.1 helburu operatiboa	Aldian behin eguneratzen den kartografia izatea kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztietarako, bai eta dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzitsuak diren elementu edo gune naturalena edo kulturalena ere.
Jarduketak	<p>7.M.1.- Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografietan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere.</p> <p>7.M.2.- Lantaron eta Añana udalerrietako turismo bulegoan edo beste lokal batean dokumentazio zentro bat edukitzea sustatzea; bertan, KBEri, biotopo babestuei eta inguruei buruzko ingurumen informazioa egongo da eta sortutako informazio berria txertatuz joango da.</p> <p>7.M.3.- «Basoko fauna eta florarako baliotsuak diren elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario zabal geoerreferentziatua» sortzea, bai KBErena bai HBBERena, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilbide txikietarako, aldi baterako urez beteta dauden lurzoruetarako, heskaietarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratzeetarako eta interes geologikoko tokietarako, etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordenatu zehatzak adierazi beharko dira.</p>
7.2. Helburu operatiboa	Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen eta funtsezko elementuen edo kudeaketaren helburu direnen kontserbazio egoera ezagutzea.
Jarduketak	<p>7.M.4.- Intereseko habitaten eta basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentzarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera.</p> <p>7.M.5.- Basozaintza zerbitzuentzako prestakuntza jarduerak sustatzea, bai administrazioarenak bai KBEko eta HBBEko aldirietan dauden ehiza esparruenak direnentzat, espazio irekietako hegazti espezieen biologiari eta arazoei, egungo egoerari eta agiri honen edukiari buruz dituzten ezagutzak hobetzeko asmoz.</p>
7.3 helburu operatiboa	KBEko eta HBBEko dibertsitate biologikoaren guztizko balio ekonomikoaren zenbatespen bat edukitzea, baita hango espezieek eta ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balioarena ere.
Jarduketak	<p>7.M.6.- Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta, izatekotan, errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.</p> <p>7.M.7.- KBE/HBBEko biologia aniztasunaren eta haien ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.</p>

7.4 helburu operatiboa	KBeko eta inguruko basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egitea, bertan puntu beltzak adierazita.
Kudeaketa arauak	Pozoitze kasuetan jarduteko protokolo bat egitea, baita peritu probak legezko berme guztiekin egiteko gomendioak jasotzen dituen agiri tekniko bat ere.
Jarduketak	<p>7.M.8.- Urtero, KBEetik, HBBEetik eta biotopo babestutik eta haien ingurutik Martiodako Basa Faunaren Susperlegian sartzen diren basa espezieen erregistroak bilduko dira.</p> <p>7.M.9.- Herritarrei, nekazariei, ehiztari elkarteei, sindikatuei eta lurraldean egon ohi diren beste kolektibo batzuei erregistro hori egiten ari dela jakinaraziko zaie, parte har dezaten eta begiztatzen dutena administrazio eskuduneko langileei jakinaraz diezaieten.</p> <p>7.M.10.- Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.</p> <p>7.M.11.- Urtero basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.</p>

II.2.2.- KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIA

Amaierako 8. helburua	Gizarte partaidetza sustatzea KBE/HBBERi erabakiak hartzerakoan eragiten dioten prozesuetan eta herritarrek haren kontserbazioan inplikatzeko.
8.1 helburu operatiboa	Aldian behin herritarrei KBeko eta HBBERi biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumen laguntzei, egoera kaltegarriak dakartzaten kausei, horien inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.
Jarduketak	<p>8.M.1.- Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean KBERi eta HBBERi buruzko atal berezia sortzea eta hura eguneratzeko mekanismoa xedatzea.</p> <p>8.M.2.- Floraren eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei eta jarduketei buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreentzat. KBERi, HBBERi eta Natura 2000 delakoari buruzko informazio panelak jarriko dira gunen horretan parte duten udalerrietan.</p> <p>8.M.3.- KBE-HBBERi eta bere helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziazte ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.</p>

	8.M.4.- Naturaguneko eta inguruko balio naturalistikoak, geologikoak, kulturalak eta arkeologikoak zabaltzeko ibilbideak aztertu, diseinatu eta, hala badagokio, trazatzea, horien babesari lehentasuna emanez.
--	--

II.2.3.- GOBERNAMENDUA

Amaierako 9. helburua	Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honen helburuarekin eta xedeekin eta horiek lortzeko ezartzen dituen jarduera, jarraibide eta arauekin bat etortzeko.
9.1 helburu operatiboa	Komite tekniko iraunkor bat sortzea Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Lantarongo eta Gaubeako udalek, mendien titular diren administrazio batzarrek eta Añanako Kuadrillak, jarduketak koordinatzeko.
Jarduketak	9.M.1.- Aurreikusitako neurrietan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, Foru Aldundiaren sailekin, Eusko Jaurlaritzaren sailekin Lantarongo eta Gaubeako udalekin, mendien titular diren administrazio batzarrekin eta Añanako Kuadrillarekin beharrezko hitzarmenak eta gainerako koordinazio mekanismoak ezarriko dira. Informazioa trukatzeko eta koordinatzeko foro bat sortuko da.

II.2.4.- ZEHARKAKO BESTE JARDUKETA BATZUK

Amaierako 10. helburua	Inguruko beste Natura 2000 espazio batzuekin konektibitatea dagoela ziurtatzea.
10.1 helburu operatiboa	KBEren eta HBBERen konektibitatea hobetzea.
Kudeaketa arauak	- Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEn eta HBBERen batasunaren intereseko edota lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Konektibitatearen aldetik interesgarriak diren eremuak identifikatzea, eta horiek kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea. KBE eta HBBERen barruan nahiz haien inguruan eta hurbileko Natura 2000 espazioetan ingurumen interes handia duten eremuak lotzen dituzten heskaien eta baso masa txikien identifikazioa eta kartografia sustatuko dira. Kartografia egin ondoren, heskaiak, baso masa txikiak eta isurketa edo erreka bide garrantzitsuenak hautatuko dira eta horiek kontserbatzeko neurriak proposatu.
Jarduketak	10.M.1.- Lursail pribatuen jabeekiko akordioak sustatzea KBE eta HBBERen barruan eta haren inguruko eremuan lotura ekologikorako interesekoak diren espazioak kontserbatzearen alde egiteko.

	<p>10.M.2.- Inpaktuen eragina duten arloak berreskuratzea (higadurak, antzinako legar hobiak eta harrobiak etab.) eta, horretarako, espazio horien ingurumenaren leheneratzea aztertzea.</p> <p>10.M.3.- Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.</p> <p>10.M.4.- Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasan dituzten areak leheneratuko dira; horretarako, hau barne hartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. - Hondatuta dauden espazioak ingurumen aldetik leheneratzea, babestutako habitatak leheneratzeko.
--	--

III.- VALDEREJOKO PARKE NATURALA ERABILI ETA KUDEATZEKO III. PLAN ZUZENDARIA

III.1.- XEDEAK

Valderejoko Parke Naturala izendatzeko urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren 6. artikulua arabera, eta Natura 2000 Sarearen espazio bat kudeatzeko tresna gisa, Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzendari honek xede hauek dauzka:

- a) Naturagunearen barruan egiten diren ekonomia eta jolas jarduerak antolatzeko arauak definitzea eta garatzea.
- b) naturagune babestuaren balioen kontserbazioaren, naturaren baliabideen arrazoizko kudeaketaren eta ingurunearen garapen iraunkorraren arteko bateragarritasuna, koherentzia eta sinergiak bilatzea.
- c) naturagune babestuaren barruan garatzen diren jarduera sozio-ekonomikoak arautuko dituzten xedapenak zehaztea.
- d) naturagune babestuaren eta haren inguruaren artean harreman orekatsua bultzatzen dituzten neurriak sustatzea.
- e) naturagune babestu hau izendatzea eta deklaratzeko eta ondoren Natura 2000 Sarearen barruan sartzea eragin zuten balioei lotutako paisaiak eratu edo mantentzen dituzten erabilera edo aprobetxamendu tradizionalak eta berritzaileak sustatzea. Beharrezkoa bada, administrazioaren eta jabeen artean lankidetzaren mekanismoak sortuko dira.
- f) naturagune babestua kudeatzeko gidalerro, irizpide eta jarraibide orokorrak ezartzea.
- g) naturagune babestuaren helburu zehatzak garatzeko programak egiteko gidalerroak ezartzea, babesari eta kontserbazioari, naturaren gertakarien interpretazioari, ingurumen hezkuntzari, Naturagunearen erabilera eta gozamen ordenatuari, ikerketari eta naturagune babestuan edo haren eraginpeko ingurunean bizi diren komunitateen garapen sozioekonomikoari dagokienez.

III.2.- KUDEAKETA ARAUAK, GIDALERROAK ETA JARDUERAK

III.2.1.- BIODIBERTSITATEA ZAINTZA

A.- Kontserbazio arauak

Valderejoko Parke Naturalaren biodibertsitatea kontserbatzeko arauak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBE izendatzen duen Dekretuan jasotakoak dira.

B.- Kudeaketa gidalerroak eta biodibertsitatea kontserbatzeko jarduerak

Kudeaketa gidalerroak eta biodibertsitatea kontserbatzeko jarduerak edo neurriak dokumentu honen 1. zatian jasotakoak dira: Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Naturagunerako kudeaketa gidalerroak eta jarduteko neurriak.

III.2.2.- KULTURA ONDAREA BABESTEA**A.- Kudeaketa arauak**

- a. Lurrak mugitzeko egiten den edozein jarduketa baimentzeko, kontuan izan behar da aztarnategi arkeologikoak egon daitezkeela eta aztarnategi horien babes-maila zein den. Aztarnategiak kontserbatzeko kautelazko babes neurri egokiak hartu beharko dira hortaz.
- b. Balizko parke arkeologikoa aztertzeko, sustatzeko eta zabaltzeko jarduera guztiak parke naturalaren Kudeaketa Organoak baimendu beharko ditu aldez aurretik.
- c. Kultura ondarea zaharberritzeko jardueretan lehenago saguzar mehatxatuen koloniarik dagoen aztertu beharko da. Koloniarik hautemanaz gero, eraikinak birmoldatzea eta teilaberritzea saihestuko da kiropteroek kumeak izateko sasoiaren (maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean), «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»n adierazitakoaren arabera.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Parke naturalari dagokion balioa emateko, interpretatzeko eta hedatzeko jarduketak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kulturaren Euskal Planaren esparruan egingo dira.
- b. Parke naturaleko kultura baliabideei buruzko azterketa eta ikerkuntza sustatuko dira.
- c. Kultur garapena sustatuko da. Horretarako, parke naturalaren kultur baliabideak kontserbatzeko eta aztertzeko helburuak betetzen laguntzen duten jarduerak eta turismoa bultzatuko dira.

C.- Jarduerak

- a. Lerón mendatean aurkitu berri diren margolanen maketa bat jarriko da Parketxean, jendeak edozein urtarotan eta edozein mugikortasun mailarekin ikusi ahal ditzan.
- b. Valderejoko Parke Arkeologikoa Antolatzeke Plan bat egitea, III.4.6. puntuan azaltzen denez.
- c. Erriberako eliza eta bere ingurunea zaharberritzeko proiektua osatzea, ondarearentzat kalte gutxien sortzen duten irtenbide arkitektonikoak erabiliz.
- d. Lahozko elizari edukia ematea, parke arkeologikoaren gune neuralgiko gisa funtzionatzeak eskaintzen duen aukera kontuan izanik.
- e. Parke naturaleko aurri multzoak eta hondakin arkeologiko interesgarriak parke arkeologiko izendatzeko lan egokiak sustatzea. Parke arkeologikoaren politika orokorra eta beraren kudeaketa eta funtzionamendua koordinatzea eta zehaztea, ondasun kulturaleri dagokionez, ondare historikoan eskumena duen foru administrazioari egokituko zaio.
- f. Ahalbideratzen duten arkeologi baliabideetara bisita publikoen araubidea ezartzea, haien kontserbazioa eta azterketa arriskutan jarri gabe.
- g. Parkeko kultur baliabideetan zabalkundeko ibilbide autogidatuak diseinatzea, eta seinaleztapen eta liburuxka egokiak esleitzea.
- h. El Castrilloko trikuharria altxatzea eta industea.
- i. Tumuluen zundaketa El Castrillo ingurunean.

- j. Covacha de Cuesta Herrán Este delakoaren terraza babestea, arkeologi mailak ez daitezen erori.
- k. Sililla izeneko harpea aztertzea eta industea.

III.2.3.- PAISAIA BABESTEA

A.- Kudeaketa arauak

Indarreko NBAPn ezarritakoa ere kontuan hartuta, parkearen barruan egin eta paisaia eraldatzen duen jarduera baimengarri oro: eraikinak eta azpiegiturak eraikitzea, mozketak eta birpopulatzeak, etab., kudeaketa organoak baimendu beharko du.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Haranaren berezko kultur paisaia kontserbatzen saiatuko gara, haren natur eta kultur balioak babesteko eta zaintzeko helburuekin bateragarria dela ziurtatuz.
- b. Egun paisaian dauden inpaktu kaltegarriak identifikatu eta zuzenduko dira.
- c. Zuhaitzak mantentzeko ahalegina egingo da, higadurari aurre egiteko modurik onena baita. Gainera, malda handia edo lur hauskorra dauzkaten hegaletan ez da makina astunik erabiliko, artzaintza arautuko da (denboraldiak eta lekuak, abere zamak, ganadu mota), eta parkearen bide sarean arekak eta ur pasabideak ipini eta mantenduko dira.

C.- Jarduerak

- a. Lahoz gunean dauden nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioei lotutako eraikinak paisaiari egokitzea, proiektu egokia eginez eta betez.
- b. Ibaiertzeko basotxoak leheneratzea, parkeko ibilguen inguruan landare zerrenda leheneratuz, dokumentu honen 1. ataleko **5.N.1.** neurrian adierazitakoaren arabera.
- c. Landazabal eremuen mugetan berezko heskaiak eta landare masak leheneratzea, dokumentu honen 1. ataleko **6.N.13**, **6.N.14** eta **6.N.15** neurrietan adierazitakoaren arabera.

III.2.4.- ZIENTZIA ETA IKERKETA JARDUERA

A.- Kudeaketa arauak

- a. naturagune babestuan egiten den zientzia edo ikerketa jarduera oro kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Horrek edozein material kendu edo biltzea dakarrenean, edota hango ingurune naturala eraldatzea dakarrenean, beharrezkoa izango da organo horren berariazko baimena edukitzea.
- b. Zientzi edo ikerketa jarduerak baimendu ahalko dira parkea kontserbatzeko helburuak oztopatzen ez dituztenean. Baimena jaso ahal izateko, eskaera egokia egin beharko da. Eskaera behar bezala arrazoitutako ikerkuntza programa batean oinarritu behar da.
- c. Zientzia edo ikerkuntza jarduerak egiteko, joan-etorrietarako baimen bereziak eman ahalko dira, murriztutako trafikoa daukaten bideetan materialak eta pertsonak garraiatu ahal izateko.
- d. Parke naturalean egindako ikerketa lanen emaitzak Kudeaketa Organoari jakinaraziko zaizkio eta haren eskura jarriko dira.
- e. Valderejoko lan zientifiko eta teknikoetan, plan honen helburuari lotuta egon eta baliabide publikoekin kontratatu eta finantzatzen diren guztietan, herritarrek erraz ulertzeko moduko dibulgazioko laburpen dokumentu bat izango dute eta eskatzen duten alderdi interesdun guztiei helaraziko zaie.

B.- Kudeaketa gidalerroak

Ikerkuntza jarduerak sustatzea, ikerkuntzan bereziki lehenetsitako ildo hauetan kokatzen direnak:

- Aisialdiko ekologia. Erabilera publikorako zama gaitasuna eta natur eta kultur balioen kontserbazioa.
- Larre jarduerarekin zerikusia duten habitat interesgarriak kudeatzeko sistemak.
- Kontserbazio jarraibideak naturagune babestuan eta biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu eta jarraitzeko, «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»n adierazitakoaren arabera.
- Geodibertsitatearen azterketa.
- Ikerketa arkeologikoak.
- Haranaren antolaketa sozial eta ekonomikoaren historiari buruzko ikerketa.

C.- Jarduerak

- a. Parke Naturalaren Jarraipenerako Programa bat diseinatzea, **III.4.1** puntuan azaltzen denez.
- b. Parkean edo Parkearekin elkarlanean egindako ikerketak, azterlanak, lanak, etab., jendarteratzea Interneten, hitzaldien, solasaldien, argitalpenen eta abarren bidez.
- c. Haranaren gizarte eta ekonomia antolaketaren historia aztertzea.

III.2.5.- ERABILERA PUBLIKOAREN KUDEAKETA**A.- Kudeaketa arauak****A.1.- Planteamendu orokorra**

- a. Joan-etorri askeko bideak izan ezik (Lalastra eta Lahoz herriguneetan sartzeko errepideak), debekatuta dago parkearen barruan motordun ibilgailuak erabiltzea, Kudeaketa Organoak behar bezala baimendutako salbuespenetan izan ezik.
- b. naturagune babestuaren eremuan debekatuta dago behaketa eta irudiak edo soinuak grabatzea sai zuri aleengandik 250 metro baino hurbilago eta ohiko pausalekueetatik, janlekuetatik eta habiak egiteko balizko guneetatik 500 metro baino hurbilago dauden postu finkoak jarriz, foru organo eskudunak berariaz baimendutako pertsona eta jarduerentzat izan ezik (6.A.8. arauketa).
- c. naturagune babestuaren mugen barruan kirol lehiaketak eta erakusketak, nahiz jende askorentzako ekitaldi bereziak antolatzeko kudeaketa organoaren baimena beharko da, «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»n adierazitakoaren arabera.
- d. Erabilera publikoarekin zerikusia duten jarduerak egiteko, Kudeaketa Organoak igarotzeko baimen bereziak eman ahalko ditu materiala eta pertsonak garraiatzeko igarobide mugatuko bideetatik
- e. Kudeaketa Organoaren baimena behar duten erabilera publikoko jarduera eskaera guztiak Parke Naturalaren zuzendariari bidaliko zaizkio, gutxienez zazpi laneguneko denborarekin. Ematen diren baimenak eskatzailearen NANarekin batera erakutsi behar dira, agintariak eskatzen dituzten kasuan.
- f. Abereei eragozpenik ez sortzeko, debekatuta dago txakurrak aske ibiltzea larre inguruetan abere taldeak hor daudenean, salbu eta lanean ari diren ardi txakurrak.

- g. Arriskutsuak izan daitezkeen arrazetako txakurrak (EAEn txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren arabera) une oro eta leku guztietan lotuta eta muturrekoa jarrita egon behar dira.
- h. Abereak zaintzen dituzten txakurrak ez dira parkearen erabiltzaileentzat mehatxua izan behar. Ezin dira aske ibili abereak dauden zonetatik kanpo, belardi eta larreetan.
- i. naturagune espazioko kudeaketa organoak eskalada arautuko du, espezie harkaiztarrak kontserbatzeari begira. Espezie horien kontserbaziorako arrisku esanguratsua hautematen bada kudeaketa organoak jarduera hori parke naturalaren eremu osoan egitea debekatu ahalko du.
- j. Jarduera hauek debekatuta daude:
 - 1. Horretarako egokitutako tokietatik kanpo sua egitea, NBAPn xedatutakoa ere kontuan hartuz.
 - 2. Parke naturalean 30 km/h baino azkarrago ibiltzea, joan-etorri libreko errepideetan izan ezik.
 - 3. Aparkatzeko seinaleztatu diren eremuetatik kanpo lurzoru urbaniza ezinean ibilgailuak aparkatzea.
 - 4. Parke Naturaleko egoteko eremuetan (herriguneak, aisialdiko eremuak eta erabilera publiko intentsiboko beste zona batzuk) txakurrak edo bestelako etxeko animaliak lotu gabe edukitzea.
 - 5. Egurra moztea eta biltzea, Mendien Foru Arauaren arabera Kudeaketa Organoak baimentzen dituen mozketak izan ezik.
 - 6. Parkearen barruan aireko kirolak egitea (parapentea, delta hegala edo antzekoak).
 - 7. NBAPn ezarritakoaren arabera, debekatuta dago parke naturalaren kanpatzea.
 - 8. Parkearen helburuen aurka argi eta garbi egiten duten jarduerak, nahiz eta EKPZ honetan berariaz debekatuta ez egon

A.2.- Erabilera publikoko azpiegiturak

Parkeko Bidezidorren Sarea

- a. NBAPn adierazitakoa ere kontuan hartuz, bizikletaz edo zaldiz, pistetan eta bide nagusietan barrena ibili ahal izango da soilik, eta ez horietatik kanpo, Kudeaketa Organoak ez badu baimentzen. Dena den, oinezkoek beti izango dute lehentasuna; beraz, oinezkoen eta bizikleta zaletuen edo zaldiz datozenen artean arazorik sortuz gero, aukera egongo da, zati batzuetan edota bide sare osoan, bizikletaz edo zaldiz ibiltzea mugatu edota debekatzeko.
- b. Parke barruko edozein ibilbide balizen bitartez edota foiletoen edo bestelako argitalpenen bitartez sustatzeko beharrezkoa izango da haren Kudeaketa Organoaren onespina edukitzea.

Seinaleak

- a. Jendeak erabiltzeko eta parkekoa ez den edozein informazio ekipamendu jartzeko, beharrezkoa izango da Kudeaketa Organoaren baimena.
- b. Debekatuta dago balizekin eta pinturekin edo kendu ezin daitezkeen elementuekin ibilbideak markatzea, Bidezidorren Saretik kanpo. Parketik kanpoko taldeek antolatutako ibilbideek, seinaleztatzea ezinbestekotzat jotzen bada, hango Kudeaketa Organoaren baimena eduki beharko dute eta baimenean markatu beharreko bidea, pertsona kopurua eta egingo den data zehatza jasoko dira. Baimendutako taldeak berak bidetik igarotzean kendu egin beharko du seinaleztapen oro.

A.3.- Sustapen, informazio eta zabaltze jarduerak

Parke naturala argitalpenetan eta bestelako euskarrietan merkataritzarako erakargarri gisa erabiltzeko beharrezkoa izango da parkeko Kudeaketa Organoaren baimena.

A.4.- Jolas, kirol eta aisialdi jarduerak

Basa elementu eta produktuak biltzea

- a) Perretxiko, onddo, landare lore eta basa fruituen aprobetxamendua 89/2008 Foru Dekretuak arautuko du.
- b) Naturagunea kudeatzeko ardura duen organoak, populazioen egoeraren eta dagoen eskariaren, aurreko aprobetxamenduen edo beste edozeinen arabera, neurri murriztaileagoak ezarri ahalko ditu.
- c) Perretxikoak eta onddoak sukaldaritza interesik gabe, bildumarako edo beste xede batzuetarako, aske biltzeko kudeaketa organoaren baimena beharko da.
- d) Debekatuta dago *Narcissus* generoko edozein espeziaren errabiolak edo loreak biltzea.

B.- Kudeaketa gidalerroak

B.1.- Planeamendu orokorra

- a. Parke naturalaren erabilera publikoa (EP) parkeak bisitariei bere natur eta kultur balioak erakusteko eskaintzen dituen aisialdiko edo turismoko jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak dira. Eskaintza hori modu ordenatuan eta seguruan egin behar du, betiere balio horiek kontserbatzen eta hedatzen dituela bermatuz, informazioa emanaz, ondarearen interpretazioaren bidez eta ingurumeneko hezkuntzaren bidez.
- b. EParen plangintza betiere natur eta kultur baliabideen kontserbazioaren mende egongo da, haiek lehenetsitako helburu baitira.
- c. Parkean EP kudeatzeko jarraibideak eta neurriak NBAPEkin eta EKPZ honekin bat etorri behar dira baina baita parkearen erabilera publikoaren planarekin ere (EPP).
- d. Langile nahikoak, trebakuntza egokia dutenak, egon behar dira, arreta pertsonalizatua eta programen garapena bermatzeko.
- e. Jendeak erabiliko dituen ekipamenduek eta zerbitzuek ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiaren irizpideak bete behar dituzte.
- f. Bisitari asko etorriko direla aurreikusten den egoera berezietan (erromeriak, kontzertuak, ospakizunak, kirol lehiaketak eta abar), neurri bereziak hartuko dira, jarduera horiek parkea onik zaintzeko helburuekin bateragarriak izan daitezzen.
- g. Aisialdiko erabileren artean gatazkarik egonez gero, ingurunearentzat inpaktu gutxien duten erabilera publikoko jarduera horiek garatzearen alde egingo da eta, baldintza berdinetan egonez gero, izaera orokorragoa edukitzeagatik erabiltzaile kopuru handiagoari eragiten dieten horien alde egingo da (adibidez, oinezkoen erabilera lehenetsiko da bizikleten edo zaldien aurretik).

B.2.- Erabilera publikoko azpiegiturak

- a. Ekipamenduak diseinatzeko eta funtzionatzeko oinarrizko araua bideragarritasuna eta eraginkortasuna izango dira. Mantentze kostuak ahalik eta gehien murriztuko dira. Haien eraikuntza eta kokapena ingurunearen ezaugarrien arabekoak izan behar dira. Ahal den neurrian, dagoeneko dauden eraikuntzak erabiliko dira, eta batez ere ingurumen irizpideak eta funtzionaltasuna lehenetsiko dira.

- b. Babestutako espazioari buruzko informazioa zabaltzeko bitartekoak modu egokian planeatuko eta antolatuko dira, baita edukiak ere, bisitari mota ezberdinei egokituko zaizkienak.
- c. Ekipamenduen plangintzan, oso kontuan izango da irisgarritasunari buruz eta arkitekturako, hirigintzako eta komunikazioko oztopoak kentzeari buruz legeak exijitzen duena.
- d. Erabilera publikoko ekipamenduak kudeatzeko formulak aztertuko dira (baimenak, emakidak, hitzarmenak eta abar). Udal ekimenari edo ekimen pribatuari aukerak eskainiko zaizkie, batez ere, tokiko herrietatik datozei. Zerbitzuak emateko formulak edonolakoak izanik ere, Kudeaketa Organoak zerbitzuaren kalitatea bere kontrolpean edukiko du.

B.3.- Atsedenlekuak

- a. Parke barruko piknik erako atsedeen jarduerak kontrolatzea. Horretarako, ekipamendu eta zerbitzu egokiz hornitutako lekuak atonduko dira, kalitatezko atsedena eskainiko dutenak, baina Parkearen berezko izaerari atxikiz.

B.4.- Parkeko Bidezidorren Sarea

- a. Mendi Federazioekin, kirol sozietate eta klubekin, turismo aktiboko enpresekin eta interesa duten gainerako erakundeekin lankidetzan aritzea parke naturalean garatzen diren aisialdi jarduerak antolatzerakoan.
- b. Bidezidorren bat gehiegi erabiltzeak espazioa onik zaintzeko helburuak kaltetu ahal baditu, sarrera mugatuko da. Gidalerro hau bereziki aplikatuko da talde handiek edo kirol probak egiten dituztenek antolaturiko txangoetarako baimena eskatzen denean.
- c. Behe aldeetan zirkuitu txikiak eta ibilbide didaktikoak bultzatuko dira, parkearen barrualdean sartzeko aukera gisa.

B.5.- Seinaleak

- a. Parkekoa ez den seinaleztapen oro mugatu egingo da: errotuluak, plaka edo monumentu oroigarriak, mendizaleen gutunontziak edo antzekoak, modu iraunkorrean edo behin-behinean.
- b. Bide guztien seinaleztapena homogeneoa izango da. Erabiltzen diren seinaleen tipologia ezberdinak izatea galaraziko da, erabilera segurua eta eraginkorra dela bermatze aldera.

B.6.- Sustapen, informazio eta zabaltze jarduerak

- a. Jendea parke naturala hurbiltzea sustatzea, informazio eta zabalkunde sistema bat ezarriz, horrela eremu honek dauzkan balio tradizionalak edo paisai, kultur eta natur intereseko balioak ezagutu ahal izateko, baina era berean eremuaren izaera gordez.
- b. Zona honen eta inguruko beste naturagune babestu batzuen arteko harremana sustatzea.

B.7.- Ingurumen interpretazio eta hezkuntzako jarduerak

- a. Biztanleak natura ingurunera eta landa jardueretara hurbildu nahi dira, ingurune hau hobeto ezagutu dezaten eta natura zaindu beharraz jabe daitezen.
- b. Ikastetxeei zuzendutako didaktikako eta hezkuntzako jardueren zerbitzua egokitzea, begirale-hezitzaileen bidez eta jendeari informazioa eta argitalpenak emanez.
- c. Zonan dauden edo aurreikusten diren beste ekimen didaktiko eta kultural batzuekin koordinatzeko mekanismoak asmatzea.

B.8.- Jolas, kirol eta aisialdi jarduerak

- a. Erabilera publikoko jarduerak eta parkearen natur eta kultur balioen kontserbazioa bateragarri izatea lortzea.

- b. Faunaren eta floraren balioa sustatzea, hezkuntza, josteta eta turismorako baliabide gisa birbaloratuz.
- c. Hegaztien behaketa sustatzea (batez ere hegazti harkaiztarrak kanpora irteten direnean, baina haien ugalketa prozesua eragotzi gabe), behaketa espazioaren baliorik garrantzitsuenetako bat den aldetik.

C.- Jarduerak

C.1.- Planeamendu orokorra

- a. Parkearen Erabilera Publikoko Plana (EPP) berraztertu, onartu eta argitaratuko da. Bertan, EKPZ honetan azaltzen diren irizpideak, arauketak eta jarduketak jasoko dira, eta jarduerak, instalazioak eta jendearentzako zerbitzuak antolatuko dira. Betiere kontuan izan behar da NBAPan ezarritako espazioaren zonakatzea, harrera gaitasuna, eta ingurumen kontserbazioko eta sentsibilizazioko helburuak. Plan horrek jarduera programak eta jarduketak, gauzatzeko baldintzak, egutegiak, gidalerroak eta aplikatzeko araudi berezia ezarriko ditu.
- b. Babestutako natur guneen Espainiako Turismo Kalitateko Sistemari (SCTE) atxikitzea. Haren ikurra turismok kalitateko Q da, Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuak (ICTE) ziurtatua.
- c. Europako Turismo Jasangarriko Gutuna ezartzea. Gutun hori EUROPARC Federazioaren ekimena da, eta haren helburu nagusia garapen jasangarriaren printzipioak betetzen dituen turismoa sortzea da. Horretarako, babestutako natur guneen kudeatzaileei eta enpresei orientazioa eskaintzen die, beren estrategiak modu partaidetuan zehazteko.

C.2.- Erabilera publikoko azpiegiturak

- a. Euskal Mendizale Federakundeak Parkeko Bidezidorren Sarea homologa dezala sustatzea, federakuntzaren Euskal Mendi Bideen Sarean sartzeko eta Euskadiko Mendi Bideen Erregistroan sartzeko, EAEn mendi-ibiliak antolatzen dituen 79/1996 Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- b. Seinaleztapenaren egoeraren berrikuspena egingo da, seinaleztapenak EKPZ honen aplikaziotik eratortzen diren arauketa berriak bete ditzan, hegazti harkaiztarren ugalketarik sentikorrek diren zonei arreta berezia emanez.
- c. Jendeari jakinaraztea mastin txakurrak daudela, otsoek artaldeei erasotzea galarazteko eginbeharra dutenak, eta haien aurrean nola jokatu behar duten azaltzea.
- d. Ezinduentzat eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilbideak sortzea.
- e. Aisialdiko eremuen erabilerearen intentsitatearen jarraipena egingo da, eta zerbitzuak erabilerearen eskaerari egokituko zaizkio, jarraipen horretan ikusitakoaren arabera.
- f. Txakurrak lotu gabe edukitzea debekatuta dagoela dioten seinaleak jarriko dira Bidezidorren Sareko bideek larre irekietara eramaten duten puntuetan, horietan abereak solte ibil daitezkeelako. Halaber, gai honi buruzko informazio kanpainak egingo dira.
- g. Parkearen barruan landareak eta animaliak biltzea debekatzen duten seinaleak jarriko dira.
- h. Ehiza baimendurik dagoen denboraldietan, eta paseatzen ari direnei eragozpenak sortzea etor daitekeen zonetan, egiten ari den ehiza jarduerari, aholkuei, bestelako ibilbideei, eta abarri buruzko seinaleztapena instalatuko da.

C.3.- Sustapen, informazio eta zabaltze jarduerak

- a. Parkearen Informazio eta Komunikazio Programa idaztea eta betetzea. Bertan, goian deskribatutako kudeaketa irizpide guztiak betetzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak agertu beharko lirateke.

- b. Parke naturalari buruzko informazio garrantzitsua eguneratuko da, jendeak Internet bidez ikusi ahal izateko (erabilera publikoa, natura eta kultura balioak, harrera zentroa eta abar).
- c. Aldian behingo kontaktuak eta elkarlana egingo dira parkekoak ez diren zenbait kolektiborekin (eskalada eta mendi federazioak, espeleologi taldeak, kirol taldeak, elkarte naturalistak, eta abar), parkean egiten diren jarduerekin zerikusia badute. Helburua informazioaren eta zabalkundearen edukiak beren eskaerei egokitzea da (gai espezifikoak, araudia eta abar).

C.4.- Ingurumen interpretazio eta hezkuntzako jarduerak

- a. Parkearen Interpretazio eta Ingurumen Hezkuntzako Programa idaztea eta betetzea, talde eta kolektibo mota ezberdinentzat interpretazio eta pedagogi material bereziak eta jarduerak diseinatzeko beharrezko diren gogoetak ezarriz.
- b. Parketxeko hezkuntza eta interpretazio ekipamendua berriztatzea, parkearen helburu berriei egokituz. Gaur egun informazioa azaltzeko eta transmititzeko dauden teknologia berriak erabiliko dira.
- c. Zonan dauden edo aurreikusten diren beste ekimen didaktiko eta kultural batzuen kudeatzaileekin koordinatzeko mekanismoak sortzea.

C.5.- Jolas, kirol eta aisialdi jarduerak

- a. Basoko produktuak eta elementuak biltzeko araudiari buruzko arauzko murrizpenen informazio lana egitea.
- b. Hezkuntzako eta Ingurumen Interpretazioko Programan hegazti harkaiztarrak eta haratusteljaleak kontserbatzeko arazoak eta haien biologia behatzeko eta ulertzeko jardura gidatuak sartzea.
- c. Kudeaketa Organoak, populazioen egoeraren eta dagoen eskaeraren arabera, neurri murriztaileagoak ezarri edo ez aztertuko da basoko produktuak biltzeari dagokionez.

III.2.6.- TOKIKO GARAPENA

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Tokiko garapenaren eremuan ezartzen diren jarduerak eta arauketak egingo den Valderejoko Parke Naturalaren Garapen Sozioekonomikoko Programaren edukiei lotuko zaizkie.
- b. Programa hori prestatzeko oinarrien iturria Euskal Herriko Landa Garapen Jasangarrirako Programa eta Eskualdeko Landa Garapenerako Programa izango dira.

C.- Jarduerak

- a. Valderejoko Parke Naturalaren Garapen Sozioekonomikoko Programa idaztea.
- b. Erabilera publikoaren ondorioz eta baliabide naturalen kontserbazioaren ondorioz erabilerak mugatzen direnean eta etekinak galtzen direnean konpentsazioak emateko sistema bat ezartzea, kalte-ordainen, laguntzen eta bestelako neurrien bitartez, II. Eranskinean azaltzen diren irizpideen eta xedeen arabera.
- c. Kudeaketa Organoak parte hartuko du Añanako Eskualdeko Landa Garpenerako Programen berrikuspen eta onarpenean, eta hurrengoetara zuzendutako neurriak sartuko ditu:
 - naturagune babestuaren helburuei eragin negatiboak ekar diezazkieketen proiektu edo jarduerak planifikatzen direla aurreikustea, bai Parkearen barrualderako, bai bere Kanpoaldeko Babes Eremurako.
 - naturagune babestuko funtsezko elementuen kontserbazioa.
 - Erabilera publikoko ekipamenduak.
 - naturagune babestuko baliabide turistikoaren erabilera iraunkorra sustatzea

III.2.7.- PLANGINTZA HIDROLOGIKOA

A.- Kudeaketa arauak

- a. Basoko lanak egiterakoan, pistak eta bideak konpontzerakoan edo makineria astuna erabiltzea eskatzen duen edozein jarduera egiterakoan, saihestu egingo da makineria horrekin atzera eta aurrera ibiltzea ibaiaren ibilguen gainean eta beste hezegune batzuetan (aintzirak, zohikaztegiak eta abar). Horrela, haietan nahasmenduak eta urak iluntzea saihestuko da.
- b. Ubideen bi aldeetan, 10 metroko zabalerako zerrenda batean debekatuta dago finkak ongarrizko gorotza edo minda botatzea.
- c. Arestikoa hala izanik ere, ur ibilguen eta hezeguneen ingurunean ongarri kimikoen eta produktu fitosanitarioen erabilera minimizatzen dela eta basa fauna eta florarentzat toxikotasun urriko edo gabeko produktuak lehenesten direla, aplikazioak gomendatutako dosi minimoetara doitzen direla eta prebentiboki eta ureztatuz aplikatzen ez direla zainduko du kudeaketa organoak.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Espazioko organo kudeatzaileari kontsultatu beharko zaio Valderejoko naturagune babestuan dauden urak hornitzeko eta saneatzeko sistemetan balizko handitzeak edo hobekuntzak izapidetzean, espazioan kontserbatu nahi diren espezie edo habitatei eragin diezaieketela aurreikusten bada, uren arloko legedian xedatutakoa ere kontuan hartuz.
- b. . Organo kudeatzaileak arroko erakunde eskudunari eskatuko dio urak ustiatzeko emakida berri eta zaharretan emari ekologikoen erregimena aplikatzeko, bereziki emariak kentzeak BENen kontserbazio helburuak lortzeko mehatxu handiagoa dakarren kasuetan.
- c. Emari ekologikoak ez dira erabiltzeko izango, eta ustiapen sistemei orokorrean ezarritako mugaketatzat hartu beharko da, herritarren horniduraren kasuan izan ezik. Edonola ere, emakida tituluak ez du berrmatuko emandako emarien erabilgarritasuna, Uren Legearen testu bateginaren 59.2 artikulua xedatzen duenez. Erabilera beraren barruan onura publikorik handieneko edo ur kontsumo txikiagoa edo kalitatea mantentzea edo hobetzea dakarten hobekuntza teknikoak sartzen dituzten aprobeixamenduak lehenetsiko dira.
- d. BENeko ur emakidetan erabiliko den emari erregimena ibaiaren hidrograma naturalari egokituko zaio, eta emari ekologiko modularren metodologia aplikatuz definitu ahalko da. Hori guztia arroaren arabera Ebroko plan hidrogikoa ezarritakoa ere betez eta, dauden aukeren artean, habitaten eta espezieen kontserbazio egoera ona mantendu edo leheneratzeko emari erregimenik onena aplikatuz beti, haren eskakizun ekologikoei erantzunez (ugalketa, umeak haztea, elikadura eta atsedena) eta epe luzera behar dituzten ur masen funtzionaltasun ekologikoa mantenduz.
- e. Landaretzaren inguruko esku hartzeak egitea: larre, basoko mozketak, etab. bilakatzea; ibilguetan sor litezkeen kalteak minimizatzen saiatuko da, solido esekiak daramatzaten jariatze urak lurrazaleko uretara iristea saihesteko behar diren neurriak hartuz.

C.- Jarduerak

- a. Bai zuzeneko ekarpenengatik (putzu septikoak, aisialdi eremuak, desparasitaziorako bainuontziak, eta abar), bai sakabanatutako ekarpenengatik (inguruko finken ongarriztea), uretan isurketak edukitzea posible duten puntuen zaintza eta kontrola areagotzea.
- b. Ur ibilbideen eta gainerako hezeguneen ertz eta bazterren Jabari Publiko Hidraulikoaren mugaketa.

III.2.8.- BASOGINTZA

A.- Kudeaketa arauak

- a. Basoko habitatak ustiatzeko habitaten kontserbazio egoera ebaluatu eta «*Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua*»n ezarritako kontserbazio helburuak lortzea bilatzen duten kudeaketa planak egin beharko dira.
- b. Plan horietan aginduko da baso habitatetan kontserbazio egoera onena duten zonak edo irisgarritasun txarra dutenak, higadura arriskua prebenitzeko edo espezieak kontserbatzeko interesgarriak direnak berez eboluzionatzen utziko direla.
- c. Basoak Kudeatzeko Planetan egur lanetarako egurraren aprobetxamenduak basoaren egitura hobetzeko ere balio duen tresna gisa sartzea, zuhaitz masaren heldutasuna eta egituraren konplexutasuna ondo garatzea bermatzen badute.
- d. Egokia irizten zaien lekuetan basoaren egitura dibertsifikatzeko lan teoriko eta praktikoak egitea (etzanda dagoen egur hila -logak-, zutik dagoena -snagak-, basoan dauden hutsuneak -gapak-, haziaren birsorkuntza naturala eta abar).

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Baso antolaketa egokituko da, parkeko funtsezko elementuen kontserbaziorako helburu berriei erantzuteko. Lurzoruaren erabilera tradizionalekin bateragarri izan daitezten ahalegina egingo da. Horretarako, basoak kudeatzeko dokumentu berriek EKPZ honetan eta «*Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua*»n ezarritako gidalerroak, jarraibideak eta arauketak jaso beharko dituzte, intereseko natura elementuen kontserbazio egoera ona bermatzeko.
- b. Basoen antolamenduaren helburua mendi garaietako hostozabalen basoberak pixkanaka kontserbatzea izango da, kasu guztietan basoen egitura konplexutasunik handiena, beste kontserbazio helburuekin bateragarri dena, bilatuz eta arrazoizko kudeaketa ekonomikoaren helburuen barruan, basoak antolatzeko tresna egokiak zehazten dituen eremuen helburuen arabera.
- c. Egurketak unadaren oihan egoera hobetzeko moduan markatuko dira, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentuan eta dokumentu honetan basoko habitatentzat zehaztutako irizpideak aplikatuz (zoruan eta zutik egur hila, zuhaitz lepatuak eta zaharrak, etab. egotea). Edonola ere, zuhaitz masaren heldutasunaren eta egitura konplexutasunaren garapen egokia bermatuko da.

C.- Jarduerak

- a. Basoak Kudeatzeko Plan Integrala egitea edo daudenak berrikustea, Baso naturalak eta erdinaturalak funtsezko elementuaren gidalerroetan eta 1.N.2 jarduera neurrian jaso denez.
- b. Aldian behin baso masetan kalteak galarazteko neurriak hartuko dira: basoko bideen konponketa suteen aurkako bitartekoak sartu ahal izateko, izurriteen eta gaixotasunen aurkako zaintza eta abar.
- c. Parkearen Suteen Prebentzio Plana berrikustea eta aplikatzea

III.2.9.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

A.- Kudeaketa arauak

- a. Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Araua betez, larreak antolatzeko eta kudeatzeko tresna idatzi beharko da, urteko aprobetxamenduen plan batekin, abeltzaintzako egutegi egokia barruan hartzen duena, espezieen arabera sailkatuta.

Abeltzaintza antolatzeko plan horrek larreen eta txilardien kontserbazio egoera ona mantentzearekin bateragarri diren abere kargak zehaztuko ditu BENen identifikatutako larre eremu bakoitzeko, *Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentuan ezarritakoaren arabera.*

- b. Larreak eraldatu edo hobetzeko jarduera oro arestiko paragrafoan aipatu Abeltzaintza Kudeatzeko eta larreak antolatzeko Plan Integralaren esparruan egin beharko da eta naturagune babestuko kudeaketa organoak baimendu ondoren. Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa II.2 funtsezko elementuaren 2.1. helburu operatiboan azaldutako gidalerroak aplikatuko dira.

Edonola ere BENeko larreen eta sastraken aprobetxamenduak haien ingurumen balioak zaintzearekin bateragarri dela ziurtatu behar du, larreen, txilardien eta giro horietan sartzen diren beste hezeguneen mosaiko irregularreko egitura mantenduz eta ingurumenaren ikuspuntutik sentikorren diren enklabeak zainduz (hezeguneak, flora eta fauna espezie mehatxatuentzako intereseko enklabeak, etab.).

- c. Parkearen barruan ganadua daukaten toki erakundeek lurralde horretan bazkatzen duen ganaduaren erregistroa eduki behar dute. Kanpaina bakoitzean, Parkearen Kudeaketa Organoari jakinarazi behar zaio zein ganadu mota eta kopuru erregistratzen diren.

- d. Identifikatu gabe edo plan honetako udal ordenantzak edo zehaztapenak betetzen ez dituen abererik aurkituz gero, kendu egingo da parketik. Ganadua ateratzeko eta mantentzeko gastuak ganaduaren jabeak ordaindu beharko ditu.

- e. Valderejoko Parke Naturaleko lur publikoetan ardia, zaldia edo behia ez den ganadua edukitzeko, Kudeaketa Organoaren baimena beharko da.

- f. Debekatuta dago parkeko erabilera publikoko mendietan ahuntzak edukitzea.

- g. Debekatuta dago drainatzeak, luberriak, landaketak, nekazaritza eta kimika ekarpenak (pestizidak, herbizidak, ongarriak, eta abar) eta Kudeaketa Organoak hezeguneetarako baimendu ez duen edozein lurzoru edota landaredi nahasmendu egitea. Gauza bera aplikatuko da haren inguruko 30 metroko perimetroan (enklabe hidrofiloak, turfifiloak, ibilguak eta dolinak).

- h. Lursail publikoetan ongarriak aplikatzeko, kudeaketa organoak erregistro bat edukiko du (kopuruak, datak eta ongarriaren jatorria eta izaera), eta une oro bazkaleku izan daitezkeen azalera osoei orokortasunez aplikatzea saihestuko da eta leku zehatzetan egingo da.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Parkeko altuerako larreetan abeltzaintza mantentzea bultzatuko da.

- b. Natura baliabideen gainean inpaktuak saihesten lagunduko duten abeltzaintza azpiegitura egokiak edukitzea bermatzea.

- c. Ingurumenarekin bateragarriak diren abeltzaintzako praktikak egiteko laguntzak ematea sustatzea, batez ere mendiko larreen zaintza eta mantentzea zainduz.

- d. Valderejoko larre baliabideen aprobetxamenduak intereseko habitatak eta espezieak kontserbatzeko EKPZ honetan eta «*Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua*»n ezarritako helburuak eta irizpideak beteko ditu, intereseko natura elementuen kontserbazio egoera ona bermatzeko.
- e. Abereen erabilera jasangarria bermatzea, abeltzaintzako eta ekologiako alderdiak sartuz, kutsadura arriskuak edota artzaintzaren gaineko arriskuak ekiditeko.

C.- Jarduerak

- a. Mendialdeetan bazkatzeko baliabideek abeltzaintzarako duten potentzialtasuna kalkulatzeko eta haien ustiapenak EKPZ honetan deskribatutako habitat interesgarriak kontserbatzearekin duen bateragarritasuna ebaluatzea.
- b. Kudeaketa Organoak toki erakundeek mendiko larreak antolatzeke eta kudeatzeko tresnak egin ditzatela bultzatuko du. Helburua parametroak (egutegia, abere zama eta abar) urtero finkatzea da, aurreikusitako eskaintzaren arabera (larre baliagarriak) eta abeltzaintzaren eskaeraren arabera. Tresna horiek egiteko Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa II.2 funtsezko elementuaren 2.1 helburu operatiboan zehaztutako alderdiak hartu behar dira kontuan.
- c. Kasuan kasu, planak abereak kanporatzeko itxiturak ezartzea komeni den jasoko du, izan kontserbatu behar den flora enklabeak preserbatzeko, izan gutxiegi erabilitako gunek jakin batzuen erabilera artzaintza gehiegi duten beste batzuen kaltetan bideratzeko.
- d. Parkeko larreak erabiltzen dituzten abereen zentsuaren urteko jarraipena egitea, indarreko NBAPko abeltzaintza estentsiboko zonen arabera.
- e. Hondakin organikoen ekoizpenaren jarraipena egitea, eta haranaren barrualdeko belardien eta zereal laboreen ongariak premium kalkulatzeko, parkearen barruan sortutako azpiproduktuen berrerabilera sustatuz. Jarraipenerako oinarria «Valderejoko parke naturalean abereen kudeaketa jasangarria egiteko proposamen baten azterlana. 2004» dokumentuan lortutako informazioa izango da.
- f. Kudeaketa Organoak nekazaritza eta ingurumeneko tresnen baterako aplikazio integrala sustatu eta bultzatuko du, Valderejoko Parke Naturalaren nekazaritza ustiategi guztietan. Honakoak dira haien tresna nagusiak: EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren nekazaritza eta ingurumen neurriak, abereen gorozkiak kudeatzeko planak eta nekazaritza eta ingurumeneko diagnostikoak (Dialecte-EAE), II. eranskinean deskribatuak.

III.2.10. EHIZA ETA ARRANTZA

A.- Kudeaketa arauak

- a. BENren eremuan uxaldiak egiteko, maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko plan bateratuan eta, bereziki, dokumentu horren 13. artikuluan, ehizak espezie horiei eragindako arriskua murrizteko neurriak ezartzen dituztenean, xedatutakoa bete beharko da.

BENren kudeaketa organoak aldi berean behin eguneratuko du BENen identifikatutako espezie nekrofagoen gunek kritikoei, etzalekuei, pausalekuei, elikatzeke gunek osagarriei buruz dagoen informazioa.
- b. Ehiza larria da parkearen barruan onartutako ehiza aprobetxamendu erregular bakarra, dagokion AFaren sailak arau ezarritako modalitateetan.
- c. Parkearen eremu osoan, bertan bizi diren edo bertatik igaro diren espezieen aleak harrapatzea baimenduko ahalko da, baldin eta ekosistema edo produkzio sistemei kalte larriak eragiten bazaizkie, indarrean dagoen legeriak ezarritakoa betez.

- d. Segurtasun zonak dira, indarrean dagoen legeriak agindutakoak ez ezik: Lahoz, Lalastra, Erribera eta Villamardones gunek; erabilera publikoko azpiegitura guztiak (bidezidorren sarea, aisialdirako eremuak, hegaztien behatokiak, eta abar) eta «Bide komunikazioen babeseko» eta «Ur ibilguen babeseko» zonak, NBAPak mugatuak. Gainera, 50 metroko segurtasun tartea ezartzen da, bidezidorren sarearen inguruan, eta 100 metrokoa, erabilera publikoko gainerako azpiegituren inguruan.
- e. Segurtasun zonetan debekatuta dago ehiza praktikatzea. Uxatu beharreko zonetatik doazen ibilbideen kasuan, txakur eta uxatzaileen joan-etorria baimenduta dago.
- f. Joan-etorri askeko sarrera saretik kanpora, ehiza jarduerekin lotutako ibilgailuek, zirkulatu eta aparkatzeko, Kudeaketa Organoak emandako baimen egokia beharko dute. Ibilgailu horiek horretarako egokitutako eta seinalez hornitutako zonetan aparkatuko dute.
- g. Urtean behin, interesdunek eskatzen badute, Kudeaketa Organoak motordun ibilgailuen joan-etorriak baimenduko dituzte parkean ehizatzeke.
- h. Ehiztariak ehiza postuak garbitu beharko dituzte; horretarako, kartutxoaren zorroak eta sor daitezkeen bestelako zaborrak batu beharko dituzte, eta, era berean, arma eta ehizatutako piezak harrokeriaz erakustea saihestuko dute.
- i. Ehiza espezieak puntualki elikatzeke janontziak erabiltzea baimendu ahalko du Kudeaketa Organoak, prebentzio neurri gisa, laboreetan kalteak sortzeko arrisku gehien dauden denboraldietan.
- j. 2.10.a) puntuan adierazitakoa ere kontuan hartuta, basurdearen ehizak arauketa hauek bete beharko ditu:
 - 1. Basurdearen populazioaren egoeraren arabera, ehiza kudeaketako foru organismo arduradunak, Parkeko Zuzendaritzaren txosten loteslea izanik, basurdea uxatzeko egun kopuru bat eman ahalko du, ehizaldiak egiteko zona eta garaia aipatuta.
 - 2. Esparruko adjudikaziodunak Parke Naturaleko Zuzendaritzari jakinaraziko dio, gutxienez 48 ordu lehenago, aurreikuspenen arabera, zein lekutan ehizatuko duten; eta horietarako baimenak emango dira edo ez, parkearen kudeaketa beharren arabera (aurreikusitako jendetza, programan jasotako jarduerak, etab.).
 - 3. Gaur egun basurdearen populazio handiak laboreei eragin diezaieketen kalteak saihesteko, Kudeaketa Organoak baimena eman ahalko du, urtero, uxaldi kopuru zehatza egiteko, aleak harrapatzeke, parkearen barruan araututako ehiza jarduerarako baimenik ez dagoen zonetan.
 - 4. Erreserba Integraleko Zonan eta «El encinar de Ribera» inguruan egindako harrapaketak, uxaldirako gunek Bidezidorren Sareko ibilbideak barne hartzen dituenen, ehizaldia 10:00ak baino lehen amaituko da.
 - 5. Gune bat uxatzea aurreikusten denean eta bertatik ibilbide seinaleztatua igarotzen bada, egunsentia etorri aurretik kartelak jarri beharko dira, jarduera horri buruzko informazioa emateko, eta, hala badagokio, ez erabiltzeko gomendioa emateko edo erabilera debekatzeko. Kartel horiek, behintzat, ibilbidearen hasiera eta amaiera lekuetan jarri beharko dira, bai eta ibilbidea uxatzeko gunean sartzen den tokietan ere.
 - 6. Bai Parke Naturaleko zaintzailea, bai ehiza kontrolatzeko beharrezko langileak bertan egiten diren uxaldi guztietan egongo dira, uxatu beharreko guneetan ibiltariak sartzea saihesteko.

7. Ehiza lurretatik iritsitako basurdeek parke naturalean dauden ondasun edo jabetzetan egin ditzaketan kalteen ordaina ehiza aprobetxamenduen erakunde titularrek eman beharko dute, Ehizaren Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Adjudikaziodun zehatzik egon ezean, kalteak foru administrazioak ordaindu beharko ditu, Parke Naturaleko aurrekontuen kargura.

k. naturagune babestu osoa Ehiza Araubide Bereziko Alde gisa hartuko da.

B.- Kudeaketa gidalerroak

Valderejoko Parke Naturalean, ehiza kudeatzerakoan, ehizatzen eta arrantzatzen diren espezieen populazioen eta ehiza eta arrantza egiten diren gizarte eta natur inguruneen artean oreka bilatuko da. Edonola ere, neurriak hartuko dira ehizak espezie mehatxatuengan zuzeneko eraginik, arriskurik edo eragozpenik ez sortzeko eta espazioaren kontserbazio helburuekiko bateragarritasuna bermatzeko.

- a. Ahal den neurrian, ehiza aisialdi erabilerekin batera egitea galaraziko da. Ehiza eremuak jenderik gutxien ibiltzen den lekuetan eta aisialdi instalaziorik edota erabilerarik ez dagoen lekuetan egongo dira. Era berean, ahalegina egingo da jende asko etorri ohi den ekitaldien aldi berean ez dadin egin (ibilaldiak, ospakizunak eta abar).
- b. Espazioa babesteko araubide berezia kontuan izanik, ahalegin berezia egingo da gaur egun ehizatzen ez diren espezieen eboluzio naturala aztertzeko.

C.- Jarduerak

- a) Parkeko Ehiza Antolatzeke Planaren zehaztapenak kontuan izanik, esparruak bere Ehizako Plan Teknikoa ezarriko du, eta beharrezkoa bada berrikusiko du. Harrapakinen Urteko Planak ere ezarriko ditu, ehizaldien emaitzaren, populazioen egoeren eta ehiza espezieek egindako kalteen mailaren arabera.
- a. Parkean ustiatzen ez diren ehiza espezieen populazioaren dinamikari buruzko jarraipena, zaintza eta azterketak egitea sustatuko da. Arreta berezia emango zaie orkatzari, erbiari, eper gorriari, galeperrari eta oilagorrari.

III.2.11.- ERAIKINAK

A.- Kudeaketa arauak

- a. Parke naturalean baimentzen diren eraikuntza erabilera eta jardueretarako, kudeaketa organoaren baimena beharrezkoa da. Organo horrek baimena ukatu ahalko du, nahiz eta baimena eskatu duenak erabilera, estilo eta eraikigarritasun baldintzak bete, baldin eta parke naturalaren helburuak bermatzeko egokitzat jotzen badu eta hori justifikatu ahal badu.
- b. Urbanizazio eta eraikuntza jarduerak parke naturalaren eremuan dauden bi herrigune finkatutan baino ezin izango dira egin: Lalastran eta Lahozen..
- c. Plan honetan zehaztutako gauzetan izan ezik, Valdegovía udalerriko Hirigintzako Plangintzan ezarritako eraikuntza baldintzak bete beharko dira.
- d. Lurzoru hiritar edo hiritargarri izendatuta ez dagoen Valderejoko lurraldea babestutako lurzoru urbaniza ezin kalifikatu da. Bertan ez da baimenduko eraikuntzarik egitea, edozein erabilera izanik ere, salbu eta parke naturalaren kudeaketaren erantzule den organoak aldeko txostena egiten badu, eta justifikatzen badu.
- e. Edonola ere, dauden eraikinak kontserbatzeko, hobetzeko eta handitzeko obrek eta egingo diren eraikuntza berriek Valdegoviako udal plangintzak ezarritako erabilera, estilo eta bolumen baldintzak bete behar dituzte.

- f. «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»n xedatutakoa aplikatuz, higiezinak, hala nola etxolak, ermitak, zubiak, etab. KBEren eremuan eraiki edo zaharberritzeko jardueretan lehenago saguzar mehatxatuen koloniarik dagoen aztertu beharko da. Halakorik hautematen bada, eraikinak birmoldatzea eta teilaberritzea saihestuko da kiropteroek kumeak izateko sasoiari (maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean).
- g. Valderejoko NBAPN adierazitakoa ere kontuan izanik, industriako erabilerei dagokienez, artisautza, arte ofizioen tailerrak, eta bertako nekazaritza eta abeltzaintza produktuak eraldatzeko eskulangintzak bakarrik baimenduko dira. Gainerako industria erabilerak baztertuta geratzen dira.
- h. Biltegiak eta handizkako komertzioa erabiltzean, nekazaritza edo basogintza ustiategi bati lotutako biltegiak baino ez dira baimenduko. Ez da bestelako biltegirik baimenduko.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Eraikuntza erabileren arauketan, protagonismo nagusia udal planeamenduko agiriei ematen zaie, betiere, NBAPEkin eta EKPZ honekin kontraesanean ez badaude.
- b. Dokumentu honetan adierazitako arau eta irizpideak betetzeak ez ditu baztertzen esku hartzen duten gainerako administrazioek dituzten betebeharrak eta eskumenak.
- c. Parkeko Kudeaketa Organoak bereziki zainduko du ohitura tradizionalari uztartutako kultura ondarea mantentzen dela eta, hala badagokio, berreskuratu egiten dela.

III.2.12.- AZPIEGITURAK

A.- Kudeaketa arauak

- a. Ibilgailu astunei debekatzen zaie, betiere, bide sareari kalte garrantzitsuak eragin diezazkioketen baldintzak gertatzen badira (egun euritsuak, ardatzeko karga gehiegizkoa).
- b. Ez da baimenduko energia ekoizteko edota garraiatzeko instalazio berririk, ezta komunikazioetakoak ere, salbu eta Kudeaketa Organoak frogatutzat ematen badu ez dutela beste baliabide batzuen zaintza kaltetzen.

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. Parkearen gaur egungo bide sarea kontserbatzea eta hobetzea, ahalik eta denboraldirik luzeenean eta ahalik eta baldintzarik onenetan ibilgailuak igaro ahal izateko.
- b. Pista eta bideen inguruko landaredia zaintzeko helburuarekin, zorua eta hustubideak egoera onean daudela zainduko da.

III.3.- KUDEAKETA ESTRATEGIA

B.- Kudeaketa gidalerroak

- a. naturagune babestua izendatzeko helburuak lortzeko behar diren langileak, materialak eta finantza-baliabideak zehaztea eta egituratzea. Kudeaketa eraginkorra eta denboran zehaztua bermatzea.
- b. Prozedura sistematikoen ezarpena erraztea, parkearen kudeaketaren antolaketa definitzeko, zerbitzuaren kalitatea mesedetzeko moduan. Egoki irizten bazaio, kudeaketaren kalitate sistemen diseinua eta ezarpena erantsiko dira, zenbait tresna baliatuz (Espazio Babestuetako Turismoari buruzko Europako Gutuna, Turismoaren Kalitatearen Q, eta abar).
- c. naturagune babestuaren eremuan eragiten duten eragile eta sektoreen prestakuntza iraunkorra sustatzea, espezieentzat eta habitatarentzat proposatutako kontserbazio helburuak lortzeko.

- d. KBEren eremuan zaintza lanak areagotzea, tokia izendatzeko balio izan duten habitat eta espezieen kontserbazio helburuak arriskuan jar litzaketen baimendu gabeko erabilerak eta jarduerak saihesteko.
- e. naturagune babestuko zaintzaileen kontrol jarduerak areagotzea espezie babestuen pozoitzeak saihesteko. Halaber, administrazioaren beraren eta naturagune babestuaren inguruneetan dauden ehiza barrutien zaintza zerbitzuentzako, nahiz abeltzain eta ehiztarientzako prestakuntza eta informazio jarduerak sustatuko dira, naturagune babestuaren barruan pozoia erabiltzearen ondorioei buruz.

C.- Jarduerak

- a. **III.4.** puntuan aipatzen diren eta parke naturalaren kudeaketa tresna nagusiak artikulatzen dituzten dokumentuak idaztea eta aplikatzea sustatzea.
- b. Kudeaketa talde bat antolatzea, ezarritako lehentasunak asetzeko eta kudeaketa arloak, haien funtzioak, lanpostuen kopurua eta kontratazio sistemak definitzeko. Esparruaren administrazioaren berezko zerbitzuak eta jarduerak, eta kontratazioen eta hitzarmenen bidez egindakoak zehaztuko dira.
- c. Urteroko memoriak egitea, modu laburtuan ondoko hauek adierazten dituztenak, besteak beste: jarduketak, norberaren langileriaren eta zerbitzu nagusien langileen dedikazioa, eta kudeaketari hitzarmenen, emakiden eta aholkularitza teknikoen bidez lotutako bestelako langileen dedikazioa. Erabilitako aurrekontua laburtzen duen fitxa sartu behar da memorian.
- d. Lankidetzaren mekanismoak ezartzea ondoko Oberantes-San Zadornil Mendietako Parke Naturalaren kudeaketaren arduradunekin behar diren akordioen bidez parkearen kudeaketaren bideragarritasuna eta koherentzia hobetzeko (adib.: suteen prebentzioa), erabilera publikoaren plangintzari (Bidezidorren Sarea) eta biodibertsitatearen (fauna, flora, habitatak) babesari dagokienez.
- e. Kanpoko finantzazio bideak aztertzea.

III.4.- BABESTEKO, BALIABIDEAK KONTSERBATZEKO ETA GARATZEKO PROGRAMAK

III.4.1.- PARKE NATURALAREN JARRAIPENERAKO PLANA

Jarraipena eta monitorizatzea planifikatutako programak ezartzea da, sistema naturalen egoera ebaluatzeko. Ebaluazio horien helburua denboran izandako aldaketak eta joerak atzematea da. Zaintza intermitentea da, estandar jakin bat betetzeko maila edo espero zen arau batetik egondako desbideratze maila egiaztatzeko. Balorazioa egiteko informazioa ingurunekeko elementu bat edo gehiago, helburu jakin batekin, behin edo gehiagotan behatzeko prozesutik dator. Behaketa denboran eta espazioan aldeztatik ezarritako programa baten arabera egiten da, eta datu bilketako metodologia konparagarri batekin.

Valderejoko Parke Naturalaren Jarraipen Planak ondoko hauei buruzko irizpideak izango ditu kontuan:

1. Biodibertsitatea: «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua» II. eranskinean zehaztutakoa jasoko du.
2. Paisaia
3. Urak
4. Basogintzako erabilera
5. Abeltzaintza erabilera

6. Erabilera publikoa

7. Aurrekontuak

A.- Jarraipen planaren helburuak:

1. Babestutako esparruen plangintzako helburuak eta haien edukiak eta kudeaketa zehaztea, jarraipen programa egoki baten bidez erraz ebaluatu ahal izateko, eta bereziki Natura 2000 sarearen ezarpenetik datorren esparru berrian.
2. Beste lurralde batzuetan ingurumen jarraipeneko programei buruz dagoen eskarmentua baliatzea programa horien ezarpena sustatzen, metodologia eta plan komuna diseinatzen eta eskualdeko jarraipen sarea sortzen aurrera egiteko.
3. Behar diren giza baliabideen eta baliabide tekniko eta materialen erabilgarritasuna sustatzea plangintzaren eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko jarraipen programa egokiak ezartzeko.
4. Metodologia eta protokolo zorrotzak, estandarizatuak eta konparagarriak erabiltzea sustatzea babestutako espazioen kudeaketa eta jarraipeneko ohiko jardueretan.
5. Valderejoko Parke Naturalari epe luzeko helburuekin eta baliabideekin jarraipena egin ahal izateko behar duen tresna ematea. Egoera adierazleak deritzenak erabiliko dira horretarako, denboran izan litezkeen aldaketak eta joerak detektatzeko helburuarekin.

B.- Jarraipen Planaren edukiak

1. Helburuak.
2. Valderejoko Parke Naturalari hurbilketa.
3. Adierazleen sistema baten diseinua: helburuak eta adierazle motak (unibertsalak eta espezifikokoak), kudeaketaren helburuei lotutako erreferentziazko esparru kontzeptuala, eskala espaziala (adierazleak aplikatzeko mailak) eta adierazle sistemaren azken egitura. Adierazleak Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 LEGEGINTZAKO DEKRETUAK naturagune babestuentzat ezartzen dituen helburuei lotuko zaizkie.

Biodibertsitatearen jarraipenari dagokionez, adierazleek «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua» ezarritako baldintzak beteko dituzte.

- a. Jarraipen areak eta aldagaiak aukeratzea, parkearen aitorten eta kudeaketa helburuen arabera. Parke naturalaren adierazleen sistema.
- b. Adierazle fitxak. Proposatutako adierazle bakoitzari buruz honakoak zehaztuko dira:
 - Adierazlearen izena.
 - Mota.
 - Deskribapena.
 - Kudeaketarentzat duen esanahia.
 - Neurriaren periodikotasuna.
 - Neurriaren protokoloa.
 - Kalkulatzeko formula, neurri unitateak, lagin atalasea edota kopurua.
 - Nahi den joera.
 - Datuen iturriak.

4. Eraitzen analisia eta aplikazioa.
5. Betearazteko estrategia.
6. Lanen programazioa.
7. Betearazteko aurrekontuen proposamena.
8. Erakunde lankideak eta lankidetzarako formulak.
9. Jarraipen Planaren indarraldia, ebaluazioa eta berrikuspena.
10. Eranskinak eta kartografia.

III.4.2.- ERABILERA PUBLIKOKO PLANA

Erabilera Publikoko Plana (EPP) erabilera publikoko jardueren, instalazioen, arauketen eta zerbitzuen proiektu antolatua da. Plana betetzeko egutegi bat, eta planean zehaztu den eremu babestuaren erabilera publikoko eredia betetzeko eta beraren funtzionamendurako baldintza zehatzak hartzen ditu barruan.

EPPak bera betearaztean parte hartu behar duten eragileei adieraziko dizkie behar diren aurrekontuak, eta aplikatu beharreko gidalerroak eta araudi zehatza. Gainera, jarraipeneko eta azken ebaluazioko sistema aurreikusten du, jarduketa guztiei buruzko adierazle zehatzekin. EPP programetan eta esku hartze eremuetan banatu ahal da. Betiere, babestutako eremuaren ezaugarrietara egokitu ahal da.

EPP horrek honako atal hauek izango ditu gutxienez:

1. Aurrekariak eta justifikazioa.
2. Plangintzaren helburuak.
 - Helburu orokorrak.
 - Berariazko helburuak.
3. Hasierako egoeraren diagnostikoa.
 - Lege esparrua.
 - Ukitutako eremua.
 - Erabilera publikoko baliabide eskuragarriak.
 - Erabilera publikoko eskaintza.
 - Eskariaren analisia.
4. Kuantifikazioa.
5. Bisitariak ezaugarritzea.
 - Zerikusia duten eragileen eta finantzazio mekanismoen sarearen analisia.
 - Harrera gaitasunaren balorazioa, eta erabilera publikorako eskenatokien definizioa.
 - Inpaktuen detekzioa eta aurreikuspena eta elkartutako neurri zuzentzaileak. Gaitasunaren zonakatzea, jardueren eta ingurunearen hauskortasunaren arabera.
 - Plangintza ereduaren baldintzen eta funtsezko ezaugarrien analisia (zerikusia duten eragileak, azpiegiturak kudeatzeko ereduak, zerbitzuak kobratzea, espazioaren kanpoaldeko zerbitzuekiko harremanak).
 - Erabilera publikoko programen jarraibideak.

6. Erabilera publikoaren plangintzaren diseinua (sektorizazioa, araudia, ekipamendu eta zerbitzuetarako gidalerroak eta programak). Erabilera Publikoko Plana osatzen eta garatzen duten programak babestutako espazioa babestearen eta kudeatzearen zerbitzutan dauden tresnak izango dira, eta haietan helburu horiekin zerikusia duten edukiak lehenetsiko dira. Mezuak errazak, ulergarriak eta erakargarriak izango dira, eta zerbitzuak, ahal den neurrian, pertsonalizatuak. Gutxienez programa hauek sartuko dira hor:
- Harrera programa.
 - Jarduerak arautzeko azpiprograma.
 - Eraginak zuzentzeko eta prebenitzeko azpiprograma.
 - Komunikazio eta Informazio Programa. Argibideak: argitalpenak, irudiaren erabilera, sustapena eta abar. Eskainitako informazioan, gutxienez, erabilera publikoaren, kokapenaren, mugen, zonakatzearen, ekipamenduen kokapenaren, arreta ordutegien eta espazioaren natura eta kultura balioen oinarritzko araudia sartuko da.
 - Ingurumen Interpretazio eta Hezkuntzako Programa. Iraupen luzeko programazioa, lehenetsitako kolektiboek zuzendua (adibidez, bertako biztanleak eta ikasleak).
 - Segurtasun programa. Bisitarien segurtasuna bermatzen duten prozedurak eta jarduketa protokoloak ezarriko dira.
 - Boluntarioritza programa.
 - Programazioa. Finantzazioaren egutegia eta aurreikuspena.
7. Erabilera publikoaren administrazioa.
- Erabilera publikoko zerbitzuak emateko formulak. Zerbitzuak emateko ereduak, pleguak eta formulak egitea.
 - Komunikazio bideak beste administrazio batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko.
8. Erabilera publikoaren plangintzaren ebaluazioa eta jarraipena. Jarraipeneko metodologia bat eta adierazleen sistema bat diseinatuko dira, bisitarien harrera gaitasuna jakiteko eta erabilera publikoko jardueren ondorioak baloratzeko: eragin sozioekonomikoa bertako herrietan, ingurumen eragina eta Ingurumen Hezkuntza eta Interpretazioko programen eraginkortasuna.

III.4.3.- GARAPEN SOZIOEKONOMIKOKO PROGRAMA

Programa hau egiteko oinarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan eta Eskualdeko Landa Garapeneko Programetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenaren Legetik eratorriak) agertzen direnak izango dira, eta programa horien lan eremuan parkearen eragin sozioekonomikoko eremua sartzen da. Dokumentuak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

1. Helburu zehatz eta neurgarriak.
2. Jarduera plana.
3. Finantza programa.
4. Gauzapenaren kronograma
5. Jarraipenerako tresnak
6. Zerikusia duten erakundeen inbertsio konpromisoak.

III.4.4.- BASOGINTZAREN KUDEAKETA PLAN INTEGRALA

«Mendiak antolatzeko proiektuak. Espazio babestuetan kontserbatzeko tresnak» (Europarc, 2013) gidaliburuan ezarritako irizpideen eta dokumentu honen II. Tituluko baso naturalak eta erdinaturalak funtsezko elementuaren 1.1. helburu operatiboan emandako gidalerroen arabera.

III.4.5. ABELTZAINZAREN KUDEAKETA PLANA

Plan horrek, gutxienez, dokumentu honen II. Kapituluko Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa II.2. funtsezko elementuaren 2.N.1 neurrian emandako puntuak jaso behar ditu.

III.4.6. VALDEREJOKO PARKE ARKEOLOGIKOA ANTOLATZEKO PLANA

Planak hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Antolatuko duen lurraldea mugatzea.
- Parkea osatzen duten elementu kulturalak eta haien kontserbazio egoera identifikatzea eta deskribatzea, parkeko ondasunen errolda sortuz.
- Ingurune fisikoaren eta ingurumen ingurunearen deskribapena eta balorazioa.
- Parkearen testuinguru kulturala deskribatzea. Diagnostiko bat eta etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena egingo dira, haren kontserbazioa eta identifikatutako baliabideen balorazioa eta erabilera aintzat hartzen dituen.

Parkea kudeatzeko moduari buruzko araudia ezartzea, Kudeaketa Organoen osaeraren eta funtzionamenduaren deskribapenarekin.

III.4.5. ABELTZAINZAREN KUDEAKETA PLANA

Plan horrek, gutxienez, dokumentu honen II. Kapituluko Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa II.2. funtsezko elementuaren 2.M.1 neurrian emandako puntuak jaso behar ditu.

III.4.6. VALDEREJOKO PARKE ARKEOLOGIKOA ANTOLATZEKO PLANA

Planak hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Antolatuko duen lurraldea mugatzea.
- Parkea osatzen duten elementu kulturalak eta haien kontserbazio egoera identifikatzea eta deskribatzea, parkeko ondasunen errolda sortuz.
- Ingurune fisikoaren eta ingurumen ingurunearen deskribapena eta balorazioa.
- Parkearen testuinguru kulturala deskribatzea. Diagnostiko bat eta etorkizuneko bilakaeraren aurreikuspena egingo dira, haren kontserbazioa eta identifikatutako baliabideen balorazioa eta erabilera aintzat hartzen dituen.

Parkea kudeatzeko moduari buruzko araudia ezartzea, Kudeaketa Organoen osaeraren eta funtzionamenduaren deskribapenarekin.

IV.- ERANSKINAK ETA KARTOGRAFIA

I. ERANSKINA.- BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEKO JARDUEREN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERRAKO KALKULU EKONOMIKOA

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	<p>Basoko lurzatiekin jabeekin konifero masak (<i>Pinus sylvestris</i>) Batasunaren intereseko habitatatoko hostozabal naturalekin pixkanaka ordeztzeko akordioak ezartzea, haien landatzea eta espezie autoktonoen osatutako basotoxoak eta heskaiak kontserbatzea sustatuz.</p> <p>1.N.1. Lehentasunez neurri hori interes ekologiko bereziko eremuetan aplikatuko da, hala nola hezeguneen inguruetan, mehatxatutako flora eta faunarentzako area kritikoetan edo leheneratzeko areetan, etab. Akordioak lehentasunezko izango dira nagusiki jabe partikular direnek kudeatutako ustiatzearen kasuan.</p>	60.000
	<p>BENeko Baso Baliabideak Antolatzeako Plan bat idaztea, egungo Basoak Kudeatzeko Plana egokitzuz, zuren eta egurren aprobetxamenduak II. Eranskinaren («Valderejo-Sobón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua») 1.R.12. Arauketan agertzen diren intereseko habitat eta espezieen kontserbaziotik datozen irizpideak sartuz. Plan honetan, zuhaitz zaharren inbentarioa eta jarduketa plana sartuko da.</p>	30.000
1.Basoak	<p>1.N.3. Arestiko neurria betez egindako planetik eta dokumentu honetatik datozen basoak kudeatzeko helburuak eta irizpideak tokiko herritarren eta basogintza jarduerak egiteko arduradunen artean zabalitza. Halaber, pertsona horiei informazioa emango zaie jardun zona bakoitzean dauden intereseko elementuen gainean: fauna mehatxatuko populazioak, balio bereziko zuhaitzak, hezeguneak edo beste habitat ahul batzuk, ondare arkeologikoa, etab.</p>	12.000
	<p>1.N.4. Batasunaren intereseko habitatak diren baso orban autoktono nagusien ezaugarriak bereiztea, haien kontserbazio egoera ebaluatzeko: egiturazko eta berariazko dibertsitatea, tamaina handiko zuhaitz helduak agertzea, egur hila oinean edo lurzoruan, hutsune txiki edo ertainak, etab.</p>	20.000
	<p>1.N.5. Basoko biodibertsitatea mantentzeko eta berezko birsortzeari ez eragiteko onar daitekeen abereen eta basa unglatuen karga kalkulatzeko.</p>	15.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	<p>1.N.6. Abereen eta basa unglatuaren kargak onargarria baino handiagoak bada, karga horiek kontrolatzea, birsortzeko eremuetan sareak edo hesiak jarri edo aleak atereaz.</p>	30.000
	<p>1.N.7. <i>Myotis myotis</i> eta <i>Barbastella barbastellus</i> espezieen populazioen aldizkako jarraipena egitea. Haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko. Besteak beste, BENen dauden kiroptero espezieerik garrantzitsuak nahiz sasoi horretan BENera erakartzen diren aleak biltzeko tokiarena egiten duten guneak identifikatuko dira.</p>	24.000
1.Basoak	<p>1.N.8. BENeko basoko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak egitea</p>	18.000
	<p>1.N.9. naturagune babestuko espezie mehatxatuen zerrenda aldizka eguneratzea, fauna populazioei eta haien kontserbazio egoerarik eguneratuenerari dagokienez. Horretarako haien populazioen aldizkako erroldak egingo dira, arreta berezia jarri Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuenei. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak.</p>	18.000
	<p>1.N.10. Ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzea.</p>	4.000
	<p>1.N.11. «Euskal Autonomia Erkidegoko eguneko tximeletei jarraitzeko programa» egiten jarraitzea eta, beharrezkoa bada, hura indartzea.</p>	24.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	1.N.12. BENren eremuko Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko omogabeei buruzko ezaguera hobetzeko berariazko laginak hartzea, haien kontserbazio egoerari buruzko diagnostikoa eginez eta presioak eta mehatxuak identifikatuz.	18.000
«Basoak» 1. FUNTSEZKO HELBURUA GUZTIRA:		273.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
2. Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa	2.N.2.	Artzaintza presioari eta abereen egonaldiei buruzko akordioak lortzea, espaziotik kanpoko erakundeek larre eskubideak dauzkaten lurretan. Lurralde osoan artzaintzaren erabilera egokia lortzeko behar diren akordioak ezarri behar dira erakunde horiekin. 12.000
	2.M.3.	Erlezaintza dinamizatzeke eta berpizteko plan estrategikoa idaztea, gutxienez puntu hauek jasoz: <ul style="list-style-type: none"> • Osasun arazoak eta <i>Vespa velutina</i>-renak kontrolatzeko ikerketa eta neurriak. • Pestizida neurotoxikoen erabilera arautzea eta debekatu arte murriztea. • Erlauntzak instalatzea sustatzea. • Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea. • Erleen eta polinizazioaren garrantziari buruzko dibulgazioa gizar-tearantzat. • Polinizazio mapak egitea, erlauntzak falta diren eremuak adieraziz. Eremu horietan erlezaintzaren garapena bultzatuko litzateke. Balio ekologiko handiko eremuetan edo eskuraezinetan polinizazio estazioak jarriko lirateke. 20.000
	2.N.4.	Foru organo eskudunek 2015-2020 LPDren kudeaketan eta, zehazki, 10.1.5. azpineurriari (Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa) lotutako laguntzetarako deitutako nekazaritza eta ingurumeneko kontratuak sinatzea sustatzea. Haietan, onuradunen konpromisoen artean, larreak kudeatzeko plan bati heldzea eta hura betetzea dago. 75.000
	2.N.5.	Lehen sektorearentzako (nekazariak, elkarreak, erlezainak eta landa garapeneko agentziak) laguntza motei lotutako komunikazio plan bat egitea, BENri lotutako ekoizpen jarduerak bizirautzea eta txilardi, otadi eta larreen kontserbazio egoera ona mantentzea ziurtatzeko. 15.000
	1.N.9.	neurria aplikatzen da, espazioan dauden eskualdearen eta/edo Batasunaren intereseko fauna espezieen kontrol eta jarraipenari dagokienez. Populazioen aldizkako erroldak egingo dira, arreta berezia jarritz espezie hauei: <i>Rhinolophus ferrumequinum</i> , <i>Rhinolophus hipposideros</i> . Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak. 18.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)	
2. Txilardi, otadi eta larreen mosaikoa	2.N.6.	Mendiko larreen eta txilardien flora osaketa ezagutzeko berriazko azterlana egitea haien espezie tipikoen kontserbazio egoera ezagutzeko eta, aldi berean, orkideetan aberatsak diren enklabeak dauden jakiteko, 6210 habitataren ezaugarriak ondo bereizi ahalizateko.	12.000
	2.N.7.	Informazio kanpaina bat egitea <i>asturiensis</i> eta <i>Narcissus pseudonarcissus nobilis azpiesp.</i> lilipen bilketa masiboa galarazteko, haien loraldian.	6.000
	2.N.8.	Mehatxu egoerarik handiena daukaten flora espezieen populazioak aldizka monitorizatzea: <i>Buxbaumia viridis</i> , <i>Orchis cazorlensis</i> , <i>Petrocoptis lagascae</i> , <i>Ephedra nebrodensis</i> , <i>Centaurea lagascana</i> , <i>Coeloglossum viride</i> , <i>Epipactis palustris</i> , <i>Galium boreale</i> , <i>Genista florida</i> , <i>Orchis italica</i> , <i>Ophrys aveyronensis</i> , <i>Saxifraga confifera</i> y <i>Silene ciliata</i> ; baita Zuzentaruaren II. eransinean sarutako beste espezie batzuenak ere, esaterako, <i>Narcissus asturiensis</i> eta <i>Narcissus pseudonarcissus nobilis azpiesp.</i> edo naturagune babestuaren eremuan etorkizunean identifikatu daitezkeen flora mehatxatuaren beste espezie batzuk. Monitorizazio horretan kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta haien habitatei eragiten dieten asaldatzeen diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.	18.000
	2.N.9.	<i>Orchis cazorlensis</i> , <i>Petrocoptis lagascae</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioetatik lortutako plantulak ernaltzeko eta hazteko protokoloak esperimentatzea gero BENEKO toki potentzialetan birkokatzeke. Neurri horren barruan, planaren indaraldian zehar sartutako banakoen jarraipen zehatza sartzen da.	18.000
	2.N.10.	<i>Orchis cazorlensis</i> eta <i>Petrocoptis lagascae</i> espezieak babestu eta leheneratzeko jarduerak gauzatzea, «EAEko flora baskularren zerranda gorrian «galzori larrian» jotzen den flora leheneratzeko planak idatzeko oinarri teknikoak» erreferentzia dokumentuaren (IHOBEn 2011ko otsaila) edo hura ordeztzen duten dokumentu eguneratuagoen arabera.	30.000
	2.N.11.	BENEn dauden gainerako flora mehatxatuaren espezieetatik mehatxu mailarik handiena dutenak, gutxienez «galzoriar» eta «kalteberak» jo direnak, leheneratzeko lanak egitea. Plan horiek egiteko 2.N.10. jardueran aipatutako erreferentzia dokumentuaren irizpideak hartuko dira kontuan.	18.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
Txilaridi, otadi eta larreen mosaikoa 2. FUNTSEZKO ELEMENTUA GUZTIRA:		
	3.N.1. BENeko lurpeko barrunbeen inbentarioa egitea.	12.000
	3.N.2. Espeleologia talde eta elkarteekin batera barrunbeak kudeatzeko plan bat egitea eta gauzatzea, barrunbeetara sartzeko eta haien miaztea. Plan horretan berariazko araudi bat sartuko da, habitat hipogeeo balioen kontserbazioa ziurtatzeko, bereziki kiropteroek, kolonizatutako barrunbeen kasuan, hala nola Puron ibaiaren haitzarteko zenobioa. 6.N.8. neurria aplikatzen da, kiroptero komunitateari eta abifauna harrikaiztarrari lotutako Batasunaren intereseko habitaten kontserbazioa bermatzen duen eskalada arautzeko plan bat egiteari dagokionez.	12.000
3. Harpeak, harkaiztiak eta lotutako habitatak	<i>Miniopterus schreibersi</i> kiropteroaren aldizkako erroldak egitea. Batez ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola banaketa, haien populazioen kontserbazio egoera, presioak eta mehatxuak. BENeko barrunbeak kudeatzeko plana egiteari buruzko 3.N.2 neurria aplikatzen da. BENeko kiropteroak kontserbatzearen garrantziari buruzko ingurumen hezkuntza eta sentibilizazioako jarduerak egiteari buruzko 1.N.8. neurria aplikatzen da. Jarduera hori BENren erabiltzaile eta bisitari guztientzat, ikastetxeentzat eta bereziki euren jarduerekin espezie horien eta haien habitaten kontserbazio egoera gehien oztopa dezaketen pertsona eta taldeentzat dago pentsatuta: foru zaindegia, basogintza sektorea, baserrien jabeak, espeleologoak, etab.	12.000
	3.N.4. Saguzarrek aterpe darabiltzaten barrunbeak kontrolatzea eta zaintzea, bereziki Puron ibaiako haitzarteko zenobioa, zeina gutxienez urtean behin berrikusi behar baitlitzateke (ahal dela udan).	12.000
	3.N.5. Riberrako haitzartearen amai aldean dagoen harpean itxitura bat jartzea, saguzarrei igarotzen utzi baina ekintza bandalikoak ekidingo duena.	6.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
«Harpeak, harkaiztiak eta lotutako habitatak» 3. FUNTSEZKO ELEMENTUA GUZTIRA:		
		54.000
	<p>BENeko hezegune nagusietatik Batasunaren intereseko habitatak dauzkaten inbentario xehea egitea. Hezegune horiek tipifikatu beharko ditu, hauek ere jasorik: haietako bakoitzean dauden landare komunitateen inbentarioa, haien kontserbazio egoeraren diagnostikoa eta kontserbazio neurrietarako (kontserbatzeko edo leheneratzeko arauketak eta/edo jarduerak) proposamen bat, kasu bakoitzean behar besteko babes perimetroa ezarriz.</p>	12.000
4.Hezeguneak	<p>4.N.1.</p> <p>Aberreek zapaltzeagatik eta eutrofizazioagatik hondatutako balio natural handiko putzuak babestea. Horretarako animaliei ez zaje uberikara sartzen utziko eta aberreei ura emateko beste aukera batzuk aztertuko dira. Balio natural handikoak izango dira alemanen urtegia, Aguilloko putzua eta Crucero eta Portillo de la Sierrako putzuak.</p> <p>4.N.2.</p> <p>Metodo naturalen bidez «7230. Aintzira basofiloak» habitatean hazten diren landare egurkarak kenduko dira.</p> <p>4.N.3.</p> <p><i>Ichthyosaura alpestris</i>, <i>Bufo calamita</i>, <i>Discoglossus jeanneae</i>, <i>Mesotriton alpestris</i>, <i>Rana dalmatina</i>, <i>Rana iberica</i> eta <i>Triturus marmoratus</i> anfibio espezieen kontrola eta jarraipena egitea, kontserbazio egoeraren diagnostikoa, bilakaera demografikoa eta haien habitatei eragiten dieten perturbazioak ere jasoz.</p>	12.000
		6.000
		24.000
«Hezeguneak» 4. FUNTSEZKO HELBURUA GUZTIRA:		
		54.000
5.Ibai sistema	<p>Ibaiertzeko lurren jabeekin borondatezko akordioak sustatzea, lur landatua, larreak edo etenak sorrarazi ahal dituzten bestelako erabilerengatik ibaiertzeko basoaren jarraitasuna galdu den tarteetan ibaiertzeko habitatak lehengoratzeko. Helburua ibaiertzeko landaredi naturalerako zerranda etengabe bat lehengoratu eta mantentzea izango da. Zerranda horrek gutxienez 5 metroko zabalera izango du tarte osoan, organo kudeatzaileak zehazten dituen lehentasuneko esparruetan eta organo horrek ezartzen dituen lehentasunen arabera. BEN planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena duten administrazioek parte hartuko dute zerranda hori ezartzean. Ibaiertzeko sistemei lotutako fauna espezieen babeslekuetarako gune aproposak sortu nahi dira, bereziki igarabentzat eta bisoientzat.</p>	40.000
	5.N.2.	18.000
	Dauden bilketei eta isuriei buruz dagoen informazio guztia biltzea, ur administrazioek (EKF eta URA) daukatenetik.	

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	<p>5.N.3. Valderejoko Parke Naturaleko zaindegiaren eta ur administrazio eskudunaren arteko lankidetzaz ibilguzen poliziaz eremutik kanpo dauden eta uretara zuzeneko isuriak (putzu septikoak, atsedenekuak, desparasitazio ontziak, etab.) edo isuri lausoak (ondoko finken ongarritzea) eragin ditzaketen jardueren ikuskaritza eta kontrol lanetan.</p>	18.000
	<p>5.N.4. Erreken ondoko eremuetan, abereak dauden haietan, uraskak eraikitze edo birgaitzeko plan bat egitea, ibai ohea zapaltzea, urak kutsatzea eta ibaiertzeko landareak galtzea saihesteko. Besteak beste, abereen sarbidea itxi eta uraskak eraikiko dira alemanen urtegi (Lahoz) eta Puro ibaian, Lahozen uretan gora.</p>	12.000
5. Ibai sistema	<p>5.N.5. BENeko ibai sistemari lotutako fauna espezieen populazioen aldizkako jarraipena egitea: igaraba, europar bisoia, ibaiko karramarro autoktonoa, <i>Barbus haasi</i>, amuarrain arrunta, abifauna, etab. Kasuan kasu, haien kontserbazio egoeraren, oparotasunaren, egituraren bilakaera demografikoaren diagnostikoa eta haien habitatei eragiten dieten asaidatzeen identifikazioa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.</p>	36.000
«Ibai sistema» 5. FUNTSEZKO HELBURUA GUZTIRA:		124.000
Hegazti harkaitarrak		
	<p>BENen dagoen eskaintza trofiko eta sasotik sasoirako aldakortasuna balioestea urte osoan behar diren baliabide trofikoak bermatzeko.</p>	6.000
6. Abifauna	<p>6.N.1. 1.N.8. neurria aplikatzen da, espazioan dauden hegaztien kontserbazioaren garrantziari buruzko dibulgazioari eta garrantziari buruzkoa. Nekrofagoen taldeari dagokionez, informazio panelak jarriko dira eta haietan abeltzaintza estentsiboaren eta harrapari nekrofagoen kontserbazioaren artean dagoen lotura estua azpimarratuko da.</p>	12.000
	<p>6.N.2. Sai arte, sai zuri, arrano beltz eta belatz handiaren bikote ugaltzaileen urteko erroldak egitea. Arreta berezia jartzea BENen ugatza edo Bonelli arranoa agertzeko aukerari.</p>	24.000
	<p>6.N.3. Sai arte ale heldu bat irratiz markatzea espazioari ematen dion erabilera ikertzeko, Celedoniaren ereduari jarraiki (NECROPIR EFA eskualdearteko proiektua (EFA 130/09 Pirinioen biodibertsitate jasangarria: harrapari nekrofagoak, kudeaketa itunduaren ikur).</p>	18.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	<p>6.N.4. Vallegrullgo amuaren (ugatza) egoera berrikustea eta beharrezkoa bada hura konpontzea. Halaber, harrapariaren diseinua duen amu bat jarriko da kumeak hazteko mozketarik egokienetako batean edo ugatzen aipamenak dauden tokietan.</p>	6.000
6.Abifauna	<p>6.N.5. BENeko sare elektrikoaren eta haren eraginpeko guneen egungo egoera aztertzea lineak zuzentzeko jarduerak lehenesteko. Besteak beste, Abifauna babesteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen dela egiaztatuko da.</p> <p>Bestalde, BENren ekialdean dauden lineak harrapariengan duten eragina balioetsiko da, toki hori baita Bonelli arranoarentzako bizi eremu izateko kalitate handiena duena eta Arabako hegoaldeko mendilerroetako HBBEak (ES0000246 kodea) hartzen duen lurraldearekiko balizko lotunea.</p>	24.000
	<p>BENen harrapari nekrofagoen heriotza tasaren jarraipena egitea, ingurune naturalean amu pozoituen legez kontrako erabileraren aurkako estrategia nazionalak eta Basa Flora eta Faunaren Batzordearen Ekotoxikologia Lantaideak proposatutako pozoitze kasuetan jarduteko protokoloak ezarritako gidalerroei jarraiki.</p> <p>1.N.10. neurria aplikatzen da, ale hilak edo zaurituak jaso eta leheneratzeko eta mehatxu eragileak aztertzeko zentroetara eramateko protokoloa ezartzeari dagokionez.</p>	18.000
	<p>Erabilera publikoaren plana berraztertzea <i>II. Eranskina «Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) KBE-HBBEko kontserbaziorako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen eta jarraipen programaren dokumentua»</i> izeneko dokumentuan «Abifauna» funtsezko elementuarentzat agertzen diren ezarritako erabileren mugaketak arauketak sartzeko, besreziki 6.A.6.-6.A.19. kodeak dituztenak nahiz mugaketa hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jendea hoberen kontserbatuta dauden baso eremuetan, hala nola San Lorenzo, Vallegrull eta Cuovoqueko amilburuen azpitik eta Santa Anaren ipar hegalean dauden pagadietan eta baso mistoetan, sartu ahal izatea mugatzea. - BENen ezagutzen diren Bonelli arranoaren habi zaharren inguruan ingurumen inpaktu nabarmen orotatik (mendi ibiliak, azpiegituren eraikuntza, errepedeak, pistak, etab.) babesteko kilometro leko erradioko zirkulu bat gordetzea. 	24.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)
	<p>BENen eskalada arautzeko plan bat ezartzea, espazioko funtsezko elementuen kontserbazioa bermatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espezie harkaiztar mehatxatuak ugaltzeko eremuetara aldi baterako sartzeko aukera mugatzea, eta segurtasuneko perimetro bat ezartzea, eragozpenak eta hazteko tokiak lagatzea ekiditeko. - Eskalatzeko sektoreen zonakitze bat ezartzea, kirol jarduerekin eta BEN kontserbatzeko helburuekin bat datorrena. 	12.000
6.Abifauna	Basoko hegaztiak	
	6.N.9. Okil beltzaren hiru urtez behingo erroldak egitea ugaltze aldian entzuteko puntuak erabiliz.	12.000
	6.N.10. Basoko harrapari hauen jarraipena egitea: miru beltza eta gorria (egonez gero), europar arrano sugezalea, aztore arrunta, gabirai arrunta, arrano txikia, europar belatza eta hontza txikia.	12.000
	6.N.11. Laginketa sakona egitea buztangorri argiak habia egiten duen tokiak aurkitzeko Prospekzioaren emaitza positiboa balitz neurriak aplikatuko lirateke BENen habia egiten duen populazio hori kontserbatzeko, hala nola tokirik egokienetan habia kutxak jartzea (% 50-80ko zuhaitz estaldura duten hostozabalen basoak).	12.000
	Mendiko hegaztiak	
	6.N.12. Ugaltze sasoiaren eta negualdian mendiko larretan dagoen paseriforme komunitatearen inbentarioak egitea.	12.000
	Landazabaleko hegaztiak	
	6.N.13. Ibaiertzeko fruta arbolek, egun lagata egoteagatik basati bihurtutakoak, osatzen duten ondare genetikoa kontserbatzea eta babestea.	12.000

2018ko maiatzaren 23a, asteazkena

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€) (6 urte)	
6.Abifauna	<p>Kontserbazio plana egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Heskaiak eta zuhaixkak kentzea eta/edo erretzea debekatzeko. - Laboreetan pestiziden aplikazioak eta larreetan ongari nitrogenatuen aplikazioak arautzea. - Altitudeko transhumantzia oinarritutako sasoiko artzaintzari laguntzea. Altitudeko transhumantzia abereek haranetan bazkatzen dute udazken eta negu osoan eta udaberrian eta udan baso gaineko larreetara (mendilerroak) eramaten dira. 	12.000	
	6.N.15.	Heskaien luzera handitzea. Heskaien luzera handitzea, belar espezieekin batera zuhaitzak eta/edo zuhaixkak landatuz, lerroetan edo kordioetan jarrita, espezie batek edo batzuek osatuta eta askotariko arkitektura heterogeneoa erabiltia.	12.000
	6.N.16.	Espazioan dauden eskualdearen eta/edo Batasunaren intereseko fauna espezieen, kasu honetan landazabalari lotutakoen, jarraipena. Antzandobi arruntaren aldizkako erroldak egitea BENren eremuan.	12.000
	«Abifauna» 6. FUNTSEZKO HELBURUA GUZTIRA:		240.000
GUZTIRA ORO HAR:		1.037.000	

II. ERANSKINA.- ERABILERA MUGAKETENGATIKO KONPENTSAZIO SISTEMA ETA LANDA GARAPENERAKO LAGUNTZAK

II.1.- Aurrekariak

Parke natural baten araudia aplikatzeak hainbat murrizketa dakartza babestutako espazioaren barruko lurretako erabilera eta aprobetxamenduetan. Lursail horien jabeei eta onuradunei kalte ekonomikorik ez sortzeko eta parkearen funtzionamenduan parte har dezaten, konpentsazio ekonomikorako zenbait mekanismo proposatuko ditugu.

Bestalde, parkearen eragin aldeko garapen sozioekonomikoko helburuek zenbait ekimen eta jardunetarako inbertsioak eta laguntzak behar dituzte. Interesdunek helburu horiek lortzeko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratu ahal izateko mekanismoak jartzea da gure xedea gai honetan.

II.2.- Helburu orokorra

Parkearen araudiak ezarritako erabileren mugaketengatik konpentsazioak ordaintzeko oinarri arautzaileak ezartzea, baita haren Eragin Sozioekonomikoko Eremuan landa garapenerako laguntzak eta dirulaguntzak emateko ere.

II.3.- Berariazko helburuak

- BENen plangintza eta kudeaketa tresnen arauketak eta exigentziak aplikatzearen ondorioz, erabilera batzuk errentagarritasun txikiagoa duten beste batzuekin ordezkatu behar dira. Beraz, aldaketa horiek dakarten finantza errentagarritasuneko galera arindu behar da.
- Parke naturalaren kudeaketaren helburuekin bateragarri diren jarduera eta erabilerak sustatzea, lanbide berriak eta garapen sozioekonomikorako aukera berriak bultzatuz.
- Azpiegiturak sortzea eta hobetzea, eta parkearen natura eta kultura ondarearen erabilera publikoarekin eta zaintzarekin zerikusia duten zerbitzuen eta ekipamenduen maila egokia lortzea.
- Parkearen eragin sozioekonomikoko eremuko biztanleak parkearen kudeaketan integratzea, eta parkearen balioak babesteagatik eta babesteko sortutako jardueretan parte hartu araztea.
- Antolatutako eremuaren natura eta kultura baliabideei buruzko jakintza hobetzeko ekimenak bultzatzea.

II.3.- Aplikazio eremua:

Laguntzak aplikatzeko eremua Valderejoko Parke Naturalaren Eragin Sozioekonomikoaren Eremua izango da. Parke naturalak mugatutako lurraldeari arreta berezia emango zaio.

II.4.- Tipologia

Parke natural izendatzetik datozen ordainketak eta laguntzak.

Erabilerak eta aprobetxamenduak mugatzeagatik eman beharreko konpentsazioak.

Parkearen adierazpenetik eta bere arauditik ondorioztatzen diren murrizpenak konpentsatu behar dira, erabilerak mugatzen direlako. Besteak beste:

- Nekazaritza eta basogintza sektorean errenta galtzeagatik ordaindu beharreko konpentsazioak, batez ere murrizpenen peko kudeaketa pribatuko lurraldeetan.
- Interesa duten habitatak babesteko nekazaritza eta abeltzaintza erabileretan kudeaketako mugaketa edo jarraibideengatik eman beharreko konpentsazioak.
- Parke naturalak sustatzen duen erabilera publikoaren ondorioz nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzei sortzen zaizkien eragozpen edo aldaketengatik eman beharreko konpentsazioak.

Parke naturalaren balioak aztertzeke eta kontserbatzeke ekimenetarako laguntzak.

Dirulaguntzak edo laguntzak jaso ditzakete ekimen publiko edo probatuak, haien xedea parke naturala hobetzea, kontserbatzea eta garatzea denean. Jarduketa lerro hauetako batean dauden jarduerak egiteko laguntzak eman ahalko dira:

- Parkearen natura eta kultura balioak aztertzea, sustatzea eta hedatzea, bertako fauna eta flora espezieak eta oinarriko prozesu ekologikoak mantentzeko funtsezko elementuak diren aldetik. Parkeak ekonomia, hezkuntza, turismo eta aisialdi baliabideetan daukan papera ere aztertzea, sustatzea eta hedatzea.
- Parke naturalaren erabilera publikoko eskaintzaren barruan ekipamendu fisikoa, langile taldea eta jardueren garapena hobetzea.
- Parke naturalean eta bere inguruko eremuan hezkuntza, interpretazio eta ingurumen boluntaritzako jarduerak diseinatzea eta garatzea.
- Valderejoko eremua parke naturala izendatzea ekarri duten balioak kontserbatzeke neurriak eta jarduketak, natur baliabideak antolatzeke planean eta EKPZ honetan identifikatuak.
- Parkea antolatzeke eta kudeatzeke dokumentuak (NBAP eta EKPZ) betetzen direla zaintzea eta jarraipena egitea.

Onuradunak

Tokiko erakundeak, enpresak, partikularrak, nortasun juridikoa duten elkarteak eta legez eratuta dauden eta espazio honi lotuta dauden guztiak, beraien helburuen artean laguntza hauen kontzeptuarekin zerikusia duten jarduerak egitea badago.

Laguntzaren xedea den ekintza egingo den lursailen jabe diren pertsona fisiko eta juridiko guztientzako laguntzak lehenetsiko dira. Parkea onik zaintzeke eta hobetzeke edo bertako basa espezieak eta haien habitatak babesteko eta onik zaintzeke ekintzak egiteke lursailen aprobetxamendua lagatzen duten jabeentzako laguntzak ere lehenetsiko dira. Eskatzailea ez bada lursailaren jabea, jabearen berariazko adostasuna izan beharko da eskatzen den jarduna egiteke.

Laguntza hauek jaso ahal izateke, ondoko betekizunak bete behar dira, gutxienez:

- Azken 5 urteetan ebazpen betearazle baten bidez zehatua ez izatea, basa fauna eta flora onik zaintzearen edo ingurumenaren aurkako urraketaren bat egiteagatik.
- Estatuarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga obligazioak ordainduta edukitzea.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa dela bide onuradun izatea galarazten duten kasuetako batean ere ez egotea.

Ingurumen gaietako indiziplinako ekintzek laguntza hauek bertan behera geratzea edo gutxitzea ekar dezakete.

Prozedura

Laguntzen eta dirulaguntzen emakida kaltetutako eremuan gizarte etekina ahalik eta gehien banatzeko irizpideen arabera bideratuko da, eta parkeko patronatuak txostena egin ondoren emango da. Adjudikaziorako, besteak beste, parametro hauek haztatuko dira balorazio irizpide gisa:

- Proiektuak parke naturalaren helburu eta jarduerari egokitzeko maila.
- Bizi kalitatea hobetzeko eta garapen sozioekonomiko jasagarrian duen ondorioaren intentsitatea, parkearen eragin sozioekonomikoko eremuan lanpostuak sortzea barne.
- Eskatzaileak, babestutako natura espazioaren erabileren araubidearen ondorioz dauden aprobetxamenduak etetearen edo aldatzearen ondorioz, galtzen dituen diru sarrera garbiak.
- Laguntzaren xede den jarduera egiteagatik lortutako ingurumen eta gizarte etekinak.

Zenbatekoa

Dirulaguntzak ematean, aurrekontuan erabilgarri dagoen dirua bakarrik baliatuko da. Urte anitzeko gastuetarako konpromisoak hartu ahalko dira.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateragarriak izango dira emandako laguntzak.

Eskaera

Laguntza hauen eskaera parkea kudeatzen duen organoari egin behar zaio. Eskaera egiten duenak edo hura legez ordezkatzten duenak sinatu beharko du.

Landa garapenerako laguntzak.

Landa garapenerako xedea duten ekimen publiko edo pribatuek konpentsazioa, dirulaguntza edo laguntza jaso ditzakete.

Jarduketa lerro hauetako batean dauden jarduerak egiteko laguntzak eman ahalko dira:

- Nekazaritzako eta basogintzako lurra modu jasagarrian erabiltzeko neurriak.
- Landa ekonomia dibertsifikatzeko neurriak.
- Inguruan tipikoak diren eta ingurumena babestearekin bateragarriak diren jarduera tradizionalak mantentzea eta hobetzea.
- Natura onik zaintzean, babestutako espazio naturalak kudeatzean eta ingurumena babestean trebakuntza.
- Eragin sozioekonomikoaren eremuko biztanleen bizi baldintzak hobetzen laguntzen duten azpiegitura eta ekipamendu obrak egitea.
- Parke naturalean bisitariak hartzeko eta egoteko aukerak hobetzeko proiektuak.
- Lan eskaintza hobetzeko jardunak eta EKPZ honen helburuak lortzeko ekarpena diren ekimen pribatuak garatzeko ekintzak.
- Nekazaritza eta basogintza sektorearen jarduketak garatzean hobekuntza teknikoa eta ingurumeneko hobekuntza dakartzaten ekimenak.

Prozeduraren baldintzak (onuradunak, neurriak, eskaerak, emakidak, finantzazioa, administrazio izapidea, etab.), indarrean dagoen Landa Garapenerako 2015-2020 Programak eta horretarako onartutako Landa Garapenerako Eskualdeko Programek zehaztutakoak izango dira.

Landa garapenean zerikusia duten gainerako erakundeekin batera (tokiko administrazioa, landa garapenerako elkarteak eta abar), Kudeaketa Organoa bitartekaria izango da, aholkulari eta katalizatzaile gisa, goian aipatutako kontzeptuetan laguntzen eskaerak eta emakida sustatzeko.

III. ERANSKINA.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZARAKO KUDEAKETA NEURRIAK ETA TRESNAK

III.1 Mendiko larreak antolatzeko eta kudeatzeko tresnak

Mendiko larreak antolatzeko eta kudeatzeko tresnak egitea eta aplikatzea indarreko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren bidez babestu eta diruz lagundu ahal da, zehazki neurri hauen bidez:

- 01N.- Ezaguerak eta informazioa transferitzeko ekintzak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Landa Garapenerako Europako Funtsaren (LGENF) bidez landa garapenerari laguntzeko 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 14. art.).
- 10.1.5N nekazaritza eta ingurumeneko neurria - Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa.

2015 – 2020ko LGPan, nekazaritzako eta ingurumeneko laguntzen artean, «10.1.5N Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa» nekazaritza eta ingurumeneko neurria dago, lursail publikoei aplikatu beharrekoa. Haren helburua mendiko larreen aprobetxamendua behar bezala kudeatzea da, abeltzaintzarren garapenerari lotua eta kudeaketako zenbait konpromiso betetzeari lotuta, mendiko larreak produkzio, natur eta paisai funtzioak uztar ditzaten.

Beherago onuradunen ezaugarriak eta bete behar dituzten konpromisoak, onartutako LGPan ezarri diren bezalaxe. Gainera, kontuan izan behar da neurriak Arabako Lurralde Historikoan izan ditzakeen berezitasunak, eta dekretu egokian jaso.

Onuradunak.

Balizko onuradunak, ondoko hauek barne:

- Nekazariak: nekazaritza ustiatuegien titular diren pertsona fisiko eta juridikoak
- Legez eraturako nekazari taldeak

Aprobetxamendu eskubidearen bi titular edo gehiago daudenean, zenbatekoa laguntza eskatzen duten artean banatuko da, bakoitzak daukan erabilera eskubidearen proportzioan; proportzioak zehaztuta ez badaude, erabiltzaileek lursailak erabiltzen dauzkaten ganadu larriko unitateen kopurua izango da erreferentzia.

Neurri horri hel diezaioketen areak EAeko Onura Publikoko Mendietan, Erabilera libreko mendietan eta naturagune Babestuetan kokatutako lur publikoak dira (*Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren arabera*).

Onuradunaren konpromisoak.

Onuradunak, laguntza aplikatu behar den denboraldian, konpromiso hauek bete beharko ditu:

- Artzaintza jarduera konpromisorako xede diren titulartasun publikoko lurretan egitea.
- Larre horien aprobetxamendu tasen ordainketan eguneratuta egotea.
- Larreen kudeaketa plan bat izatea eta betetzea. Larreen kudeaketa planak ondoko baldintzak bete behar ditu:
 - Gutxienez hamabost eguneko indarraldia izan.
 - Lurren titularrak diren erakundeek onartu behar dute eta lurralde historiko bakoitzeko Mendien Kudeaketa Organoak haren aldeko txostena egin behar du.
 - Larreen Kudeaketa Plana dagokion zona osorik edo zati batean Natura 2000 Sareko espazio bat bada, lurralde historiko bakoitzean sare horren kudeaketaren arduraduna den organoari jakinaraziko zaio.
 - Larre iraunkorren erabilera egokia bermatzeko, benetako abere zama 0,2 ALU/ha edo handiagoa izango da. Maila horren gainetik, larre motaren eta haietako bakoitzaren tokiko baldintzen arabera, nekazaritza ekosistema bakoitzaren arabera egokientzat jotzen diren benetako abere karga maila minimo eta maximoak ezarri ahalko dira. Bestela, benetako abere zama ez bada maila egokietara iristen, ezinbestekoa izango da mantentze lan egokia egitea, larre iraunkorra ez degradatzeko eta sastrakek larrea ez inbaditzeko moduan.
 - Gutxienez eduki hauek sartu behar dira:
 - Bazkatzeko zonen kokalekuaren mapa, eskala egokian.
 - Bazkatzeko azalera osoaren ebaluazioa.
 - Abere zama onargarriaren definizioa.
 - Animaliak, zein espezieetakoak diren, larreratzeko sarrera eta irteera egutegia.
 - Planaren indarraldian urtero egin beharreko jarduketaren plangintza.
 - Larreen Kudeaketa Planak ukitutako zona Natura 2000 Sareko espazio bat osorik edo zati batean hartzen bada, espazio horretan kontserbatu behar diren eta plan horren eragina jasan dezaketen elementuen gaineko informazio xehea erantsiko da (habitata eta espezieak).
 - Betebehar hauek sartuko dira:
 - Sua ez erabiltzea.
 - Birbasotutako eta birsortutako eremuak errespetatzea.
 - Kontserbatzeko interesgarriak diren fauna eta flora errespetatuko ditu.
 - Horma, harrizko artegi, borda eta artzaintza jardueran ohikoak diren beste elementu batzuk mantenduko ditu.
 - Neguan atsedenaldi bat aurreikustea, larreetako habitata lehengoratzeko eta animalien osasun kontrola egiteko, administrazio organo eskudunek berariazko baimena eman ezean.

Larreak Kudeatzeko Planak 4.3. azpineurriaren bidez (Nekazaritza eta basogintzarentzako garapen, modernizazio edo egokitapenerako azpiegiturarako inbertsioetarako laguntzak) finantzatu ahalko da.

III.2 Nekazaritza ustiategietan aplikatu ahal diren nekazaritza eta ingurumen izaerako tresnak

Hemen Valderejoko Parke Naturalean (zehazkiago, nekazaritzako ustiategietan) sar daitezkeen lurretan aplikatu ahal diren tresnak aurkezten dira. Horiek guztiak izaera boluntarioko tresnak dira. Ez dira nahitaezkoak nekazaritzako ustiategien jabeentzat.

▪ Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren nekazaritza eta ingurumeneko neurriak

Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan, nekazaritza, ingurumena eta klima izenaren pean, nekazaritza eta ingurumeneko 6 neurri biltzen dira guztira. Nekazariei edo lurraren beste kudeatzaile batzuei bideratutako laguntzak dira, nekazaritzako ustiategietan nekazaritza, ingurumen eta klimako konpromisoak modu boluntarioan sinatu dituztenak.

Hauetako dira «Nekazaritza, ingurumena eta klima» 10. neurriari lotutako lehentasunak:

- 4.L.: Nekazaritzaren eta basogintzaren mendeko ekosistemak lehengoratu, babestu eta hobetzea.
- 5.L.: Baliabideen eraginkortasuna bultzatzea eta karbono gutxi erabiltzen duen zein klima aldatetara ongi egokitzen den ekonomiara igarotzeko bidea sustatzea, nekazaritzaren, elikagaigintzaren eta basogintzaren sektorean.

Eta zeharka lehentasun honi:

- 1.L: Nekazaritzan, basogintzan eta landa eremuetan ezagueren transferentzia eta berrikuntza sustatzea

Haien barruan, ardatz area hauek nabarmentzen dira:

- 4.A: Natura 2000 eremuetan sartutako biodibertsitatea eta balio natural handiko nekazaritza sistemak eta Europako paisaiak leheneratzea eta zaintzea.
- 4.B: Uraren kudeaketa hobetzea.
- 4.C: Zoruaren kudeaketa hobetzea.
- 5.A: Uraren erabilera eraginkorragoa nekazaritzan.
- 5.D: Nekazaritzatik datozen berotegi efektuko gasen eta amoniakoaren isurketak murriztea.
- 5.E: Nekazaritzan eta basogintzan karbonoa harrapatzea sustatzea.

Eta zeharka ardatz area honi:

- 1.B: Nekazaritza eta basogintzaren eta ikerketa eta berrikuntzaren arteko loturak indartzea.

Valderejoko Parke Naturalean sartutako lurretan «nekazaritza, ingurumena eta klima» laguntza lerroan sartutako neurri hauek aplikatu daitezke:

- 10.1.1N - Ekoizpen integratua: Erreferentziako araudian neurriaren nekazaritza eta ingurumeneko helmenaren gauzapena hobetzeko adierazitako ingurumen edukiko konpromisoak biltzen ditu. Nekazaritza eta ingurumen inpaktu positiboa duten konpromisoak dira eta zuzenean aplikatu daitezke laguntza jasotzen duten eremuetan.

- 10.1.2N – Euskal Autonomia Erkidegoko sagardotarako sagastien tokiko barietateak, higadura genetikoaren mehatxupearan daudenak, kontserbatzea.
- 10.1.3 - Tokiko animalia arrazak kontserbatzea
- 10.1.4N - Biodibertsitatea hobetzeko erlezaintza
- 10.1.5N - Mendiko larreen aprobetxamenduaren kudeaketa, arestiko puntuan zehaztutako neurria.

Ingurumen inpaktu positiboa izan dezaketen BENeko nekazaritza ustiategiei aplikatzen zaien 2015-2020 LGPren beste neurri bat 11N: Nekazaritza ekologikoa neurria da. LGPren arabera, neurri horrek zeharkako helburu hauetan ere laguntzen du: Berrikuntza (egin behar diren plan eta kontroletan oinarrituta), Ingurumena (nekazaritza ekoizpen eta jardunbide jasangarriagoko sistemak sustatuz) eta Klima aldaketa arintzea eta hari egokitzea (ongarritzean berotegi efektuko gasak murriztuz, etab.).

▪ Abereen gorozkien kudeaketa

Azken urteetan abereen gorozkien inguruan zenbait ekimen egiten ari dira, egoeraren diagnostikoa egiteko eta abeltzainei konponbideak proposatzeko asmoz:

- «Arabako aberren gorozkien kudeaketaren azterlana. 2007ko otsaila». Azterlan hau Sergal Sociedad Cooperativa kudeaketa zentroak eta UAGAK egin dute, Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailarekin lankidetzan. Azterlan horren bidez, abeltzaintza ustiategietan gorozkien kudeaketari buruz egin behar diren zenbait neurri eta jarduera definitu ziren. EAeko LGP, «04N. Aktibo fisikoetako inbertsioak» neurriaren bidez. Zehazki, 4.1N.- *Nekazaritza ustiategietako inbertsioetarako laguntza azpineurriak*, laguntza jaso dezaketen proiektuen artean, nekazaritza lurzoruan ingurumen inpaktu negatiboak arintzeko inbertsio proiektuak sartzen ditu: ongarrien erabileraren eragingarritasuna hobetzeko ekipoak (traktoreak ez), eta simaurra nahiz mindak biltegitratzeko eta banatzeko hobekuntzak.
- «Kalitatezko konpostajea egiteko abeltzaintzako hondakinen erabilera, produkzio ekologikoari bideratua» proiektua (Neiker, Sergal, ENEEK, UAGA) eta konpostaje sarea finkatzea Sergalekin.

▪ Nekazaritza eta ingurumeneko diagnostikoak, DIALECTE -EAE

DIALECTE – EAE nekazaritza eta ingurumeneko diagnostikoek dagozkien ustiategi bakoitzaren ingurumen balorazioa egiten dute, bai nekazaritzako osagaiekin bai ingurumeneko osagaiekin, ustiategiaren ikuspegi ahalik eta orokorra lortzeko asmoz eta hobekuntza planak proposatzeko asmoz.

III.3 Valderejoko parke naturalean abereen kudeaketa jasangarria egiteko proposamena

Laburpen taula hauek aurkeztu dira belardietan eta zereal laboreetan gomendatzen den simaur zenbatekoari buruz.

1. taula. Belardietarako gomendatzen den simaur zenbatekoa (tm/ha) eta simaur zenbateko osoa (Tm).

Lurzatiaren zk	Gomendatutako simaur zenbatekoa (Tm/ha)	Azalera (ha)	Zenbateko osoa (tn)
4	10,6	24,8	262,9
22	3,1*	7,8	24,2*
24	1,3*	7,14	9,3*
29	0,9*	17,4	15,7*
41	0,2*	0,5	0,1*
Gainerako lurzatiak	0	177	0

2. taula. Zereal laboretarako simaur zenbatekoa (Tn/ha) eta simaur zenbateko osoa (Tn).

Lurzatiaren zk	Simaur zenbatekoa (Tm/ha)	Azalera (ha)	Zenbateko osoa (Tm)
35	60	3	180
11, 16, 17, 18	0 *	10,6	0
Gainerako lurzatiak	45	51,5	2318
* Hektarea bakoitzeko 100 kg nitrato amonikoko mantentze dosia gomendatzen da			

IV. ERANSKINA. KARTOGRAFIA

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa naturagune babestuari dagokion kartografia Eusko Jaurlaritzaren webean eskura daiteke: www.euskadi.eus/natura